

Bergarako astekaria

Berrigara



Argizaiolak

Galdutako errittoa



MICRA

5urteko *garantia osoa.*

PATROL GR

T. Blanco

Amillaga 22
Tf. eta faxa:
943 76 17 35



Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeke aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarrizketaren** bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzeta lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea. **Euskararen** benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da.

Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

Orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



eusko
alkartasuna





Hauteskundeak

Maite Mozos / Irakaslea

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak direla eta, sarritan hala-koak entzun ohi dira: "nik politikaz ez dakit...", "ez daukat bozkatzeko asmorik...", "paso egiten dut...", "politikariek beti nahi dutena egiten dute, total..." eta abarreko leloak. Egia da, azkenengoetan, botorik eman ez dutenen portzentaiak, orohar, gora egin duela eta horretarako arrazoiak ere izan direla.

Har dezagun gazteen multzoa: 18 eta 25 urte bitartekoak, demokraziarekin jaio dira eta batzuek ez diote ematen horrenbeste garrantzia sistema politiko honi. Helduagoak: 35 eta 55 urte bitartekoak, lehenengo aldiz bozkatu genuenean, ilusioz beterik hurbildu ginen hauteslekuetara. Eta bigarrenean ere bai, eta hirugarrenean... Honezkerro, milaka galdera egin diogu geure buruari: zertarako botoa eman politikarientz hitzak eta agintzak aireak eramaten baldin baditu? Biharamonean ahazten bada kanpainak iraun duen bitartean esaten dutena? Gero eta konfidantza gutxiago dugu alderdi politikoen egi-

tasmoetan ez baita samurra izaten berriro sinistea betetzen ez diren hitz faltsuetan.

Hau guztia ulertzekoa da, eta onartu behar dugu hauteskunde kanpaina aspergarria dela politika mundutik kanpo bizi garenontzat, baina "politika" denok egiten dugu modu batean edo bestean; bai lagunen arteko solasaldietan, bai lantokietan edozein egoerare aurrean ditugun jarrerekin. Are gehiago esango nuke, ez dugu ihes egiterik, sistema honen partaideak gara eta kitto. Beraz, atrebentzia bada ere, animatzen zaituztet oraingo honetan paso ez egi-

"Bidea ez da erreza izango, baina saiatu behar dugu elkarrekin ibiltzen helmuga diferenteak eduki arren. Kontua izango litzateke hauteskundeen emaitzak onartzea eta aurrera egitea"

tera etorkizun itxaropentsua baitator.

Stormont-eko akordioaren ostean politikarientz plantak aldatu egin dira oso; Lizarran klase askotako ordezkariak bildu ziren eta argazkietan elkarren ondoan izan ditugu elkarri begiratu ezin ziotenak. Keinu hauek herri xumearengan esperantza berpiztu dute.

Hala ere, asko dago oraindik egiteko, horrexegatik dira hain garrantzitsuak gure botoak, guztion iritzia plazaratzeko. Nire ustetan irabaztea edo galtzea ez da kontua, lagun guztion desioak parlamentuan egotea baizik. Bizikidetzaz ahalik eta onena izateko parlamentutik hasi beharko ginatke alderdien ordezkariak elkarrekin gobernatuz. Gizarte plural batean bizi baldin bagara, denontzako lekua egon beharko litzateke. Ez dut esango bidea erreza izango denik, baina saiatu behar dugu elkarrekin ibiltzen helmuga diferenteak eduki arren (batek daki). Kontua izango litzateke hauteskundeen emaitzak onartzea eta aurrera begiratzea.

Ea datorren urteko "Bake Nobel saria" eskuratzen dugun. B

■ barruan



Nora Palmitano

Irakaslea

"Ez dit inolako lotsarik sortzen Pinocheti etorkizunik beltzena opa izateak"

13. orrialdean.



Iñaki Andueza

Antxintxikalaria

"Behobia-Donostia lasterketa gogorra da eta errespetua hartu behar zaio"

25. orrialdean.



David Reglero

Jam aretoko atezaina

"Diskotekako atezain lanaren gauzarik txarrena mozkorrak aguantatzea da"

33. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1855. Urriaren 26an Evaristo Espinosa jaio zen Masterreka kalean. Irakasle ikasketak egin zituen baina osasun txarrekoa izanik, apenas lan egin zuen horretan. Euskaltzale handia, garbizalea, harreman estuak izan zituen Eleizalderekin. Euskaraz asko idatzi zuen, baina Gerra Zibila iritsi zenean, senitartekoek etxean zeuden liburu guztiak erre zituzten eta bere lan banaka batzuk baino ez zaizkigu geratu.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1805. Urriaren 21ean Txurruka mutrikuarra hil zen Trafalgarren.
1839. Urriaren 25ean Arrazola Madrileko agintari euskaldunak Foruak kendu zituen.
1979. Urriaren 25ean, Gernikako Estatutuari baietza.

MUNDUAN GERTATUA

1892. Urriaren 18an hiriarteko lehenengo telefono sarea inauguratu zen New York eta Chicagoko artean.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 16
 3-9-19-22-30-42 (osag.27/er.1)
Astelehena 19
 15-25-34-36-38-40 (osag.14/er.5)
Martitzena 20
 6-12-23-31-34-47 (osag.11/er.8)
Eguaztena 21
 13-15-21-31-38-40 (osag.16/er.0)

PRIMITIVA


Zapatua 17
 5-17-22-27-29-41 (osag.9/er.3)
Domeka 18 Gordoia
 4-6-14-27-31-42 (osag.15/er.0)

ONCE

Eguakitza 16: 70.187 (K. seriea: 168)
Astelehena 19: 88.848
Martitzena 20: 89.891
Eguaztena 21: 03.588





Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Astean zehar eguraldi ederra izan badugu ere, hodeiak eta zeru estaliak nagusituko zaizkigu asteburuan, batez ere goiz partean. Tenperaturak behera egingo du eta haizeak hegomendebaldetik joko du arin.

Ilargiaren aldiak

-  Ilberri: urriak 20
-  Ilgora: urriak 28
-  Ilbete: azaroak 4
-  Ilbehera: azaroak 11

Eguzkia

Domeka, urriak 25



Sortu: 07:39



Gorde: 18:22

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 15	23	9	-
Eguakitza 16	26	11	-
Zapatua 17	20	8	6,7
Domeka 18	15	12	9,6
Astelehena 19	15	9	12,4
Martitzena 20	19	10	-
Eguaztena 21	23	5	-


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Albailen


Ahalbait lehen, lehenbailehen.

- Esaixok anaiak albailen pasatzeko emendik, paketia daukala ta.



Ordu aldaketa

Domeka goizean, **03:00etan**, ordubete atzeratu beharko dira ordulariak. Beraz, **02:00ak** izango dira. Ez ahaztu domeka goizean eginkizun garrantzitsuren bat duzuenok!



Farmaziak

Eguakitza 23:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 24:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 25:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 26:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Martitzena 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 28:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 29:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 25: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Eneko Lizarralde
Urriaren 3an
5 urte.
Urte askotarako!
Iker eta etxeokak.



Manoli Acosta
Urriaren 21ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jacinto Cuadrado
Urriaren 28an
66 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Aitor Murillo
Urriaren 15ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak, Iker, Luka,
Jone eta Amaia.



Olaia Bouzas
Urriaren 19an
16 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Ainara Leizeaga
Urriaren 24an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Rosa Garcia
Urriaren 19an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Osaba-izebak eta lehengusuak.



Harri Albisua
Urriaren 16an
13 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Naiare Martinez
Urriaren 17an
15 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Jabi "Kafe"
56 urte. Urte askotarako!
Hire lagun punkek pakea opa ditek "anaia".



Maria Pilar Garayoa
Urriaren 20an 39 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Santi Etxeberriarteun
Urriaren 17an
31 urte. Urte askotarako!
Kris.



Miguel Nuñez
Urriaren 22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Iosu Ugarte
Urriaren 19an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Maialen Lopez
Urriaren 9an 9 urte.
Urte askotarako!
gurasoak eta Mana.



Iñigo Ena
Urriaren 17an
4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Alfredo Crespo
Urriaren 20an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Naiara Gala
Urriaren 15ean
12 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Mireia Muñoz
Urriaren 25ean
6 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Ruben Cuesta
Urriaren 23an
6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta arreba.




Maitane Larrañaga
Urriaren 17an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



German Muruamendiz
Urriaren 22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Eva Garcia
Urriaren 16an
21 urte.
Urte askotarako!
Familia eta mutila.



Aritz Ugarte
Urriaren 10ean
20 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Bixenta San Migel
Urriaren 27an
83 urte. Urte askotarako!
Etxeokak.



Idoia Aiastui
Urriaren 21ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Agurtzane Garcia
Urriaren 22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Agurtxi! Bartolo eta koadrilakoak.



Edurne Iturbe
Urriaren 27an
13 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Amaia Anton
Urriaren 20an
7 urte. Urte askotarako!
Gurasoak, Joseba eta John.



Xabier Urrutia
Urriaren 14an
17 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Iker Larrañaga eta Ion Unamuno
Urriaren 21ean 20 urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.




Andres Alzelai
Urriaren 23an
73 urte.
Urte askotarako!
Familia eta ilobak.




Manuel Gonzalez
Urriaren 16an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maritxu Arruti
Urriaren 26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Andoni eta Maria.



Iban Barrutia
Urriaren 24an
20 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Gorka Gonzalez
Urriaren 24an
21 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Erika Iturbe
Urriaren 19an
16 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Borja Berroya
Urriaren 16an
2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mikel Arkauz
Urriaren 22an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Eider Ucin
Urriaren 18an 21. Urte askotarako!
Ibai, Zigor, amama eta martokoko lagunak.



Pilar Erdabide
Urriaren 27an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Larraitz Lizarralde
Urriaren 2an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Anaia.



Julen Molpeceres
Urriaren 27an
5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Aitor.



John Prieto
Urriaren 28an
7 urte. Urte askotarako!
Etxeokak, Anartz eta Garazi

jaioetakoak

ANTZUOLA

Josune Garcia Muñoz

Irailak 25

Eider Aranzabal Lamariano

Urriak 7

hildakoak

BERGARA

Jose Badiola Gabilondo

Urriak 16, 72 urte

Bixente Lazpiur Gisasola

Urriak 19, 80 urte

Maria Pilar Garaikoetxea Etxaniz

Urriak 22, 57 urte

ANTZERKIA

► **Leandre** taldearen “?” antzezlan gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Laudibus** Britainia Haundiko abesbatza eguean, hilak 29, 20:00etan Mizpirualdeko Santa Maria Magdalenaren ermitan.

► **Blind guardian eta Iced Earth** taldeak urriaren 31n Jam aretoan. Sarrerak aurrez 2.300ean eta takilan 2.500 pezetan.

ERAKUSKETAK

► **Edurne Erañaren** ikasleen lanak Nahikarin.

► **Xabier Agirrerren** margo erakusketa Bilboko Ederti galerian (Alda. Rekalde, 37) urriaren 31ra arte.

IKASTAROAK

► **Moises Azpiazu** dantza taldeak bereziki helduei zuzendutako fandango eta arin-arin ikastaroa antolatuko du azarotik aurrera (zapatuetan 11:00etatik 12:30ak arte). Hileko ordaina 2.000 pezetakoa izango da. Argibideak eta izen-ematea 943 76 15 40 zenbakian.

OLEO ERAKUSKETA


Garbiñe Arrieta

Non: Kultur Etxeko erakustaretoan Azaroaren 1era arte

Garbiñe Arrietaren oleo erakusketa zabaldu zen atzo Kultur Etxean. Garbiñe urduri zegoen bere lehendabiziko erakusketa honen atarian, ikusleen kritikarekin zertxobait kezkatuta. Margotzeko bokazioa txikitatik duela esan digu Garbiñek baina 45 urte izan zuen arte ez zen margotzen hasi. Mari Paz Alustizarekin marrazketa ikastaro labur bat egin ondoren, bere kabuz hasi zen margotzen eta Kultur Etxean ordutik egindako lanaren muestra bat ikus daiteke egunotan. Bere esanetan “pintura afizionatu bat besterik ez naiz eta lotsa piskat ematen dit erakusketa hau egiteak. Semeak, ni jakin gabe, nire izena eman zuen eta etxeakoak animatuta etorri naiz. Denbora pasa ibiltzen naiz margotzen, niretako gauzarik ederrena da. Margotzen zarenean arazo guztiak ahazten dituzu, benetan osasun-

ria da eta askori esaten diet margotzen hasteko, oso erlajagarria delako. Ez naiz astean hainbeste ordu sartzen dituen horietakoa baina ahal dudan guztietan margotzea gustatzen zait”.

Garbiñek 30 bat koadro zintzilikatu ditu Kultur Etxeko paretetan, paisaiak, lorak edo bodegoiren bat tartean. Oleotan kolore biziak erabiltzea gustatzen zaio. Familiakoei eta lagunei saldutako koadroak erakusketan jartzeko egun batzutarako berreskuratu ditu Garbiñek. Ohizkoa denez, astebarruan 18:00etatik 21:00etara izango da zabalik erakustaretoa. Zapatu eta domekan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. B



Argazkian, Garbiñe Arrietak Kultur Etxean erakusten duen oleoetako bat.

LEHIAKETAK

► **Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren Sariketa.** Aurtengo gaia librea izango da eta munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aur-

keztu ahal izango dira. Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. 943 77 12 28.

DEIAK

► **Dardo txapelketa** (301

erara) bihar, zapatua, 16:00etatik aurrera Pol-Pol tabernan. Finalak domekan, 18:00etan. Izen-ematea Pol-Polen bertan.

► **Jubilatuena kultur hamabostaldia.**

Martitzenean, hilak 27,



AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreak 13 behea ☎ 943 76 55 00

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

“Boluntario lana, pauso bat gehiago emateko aukera” izenburuko hitzaldia, 19:30etan Miguel Altuna institutuan. Hizlaria:

Gonzalo Berzosa gerontologo. Eguenean, ordu eta toki berean, gizarte-erakundeetako boluntarioen espezializari buruzko mahai-ingurua.

► **Argazki-rallya** domekan, hilak 25, Bergaran. Izen-ematea domekan, 8:30etatik 9:30etara Pol-Pol Argazki Taldearen lokalean (Zabalotegi, 5).

► **San Joxepe** elkarteak Donostiako La Perla bainuetxera joateko irteerak iragarri ditu azarorako. 943 76 21 40.

► **Diapositiba emanaldia:** “*El fenomeno El Niño en Peru*” eguakitzean, hilak 30, 19:00etan Kultur Etxean.

► **Euskal Mendi Federakundeak** eta beste hainbat taldek deituta, zentral eoliko kontrako akanpada Karakate eta Atxolin bitartean, urriaren 31n. Irteera 15:00etan Azkoitia, Elgoibar eta Sorluzeko plazetatik.

OHARRAK

► **Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren** (kontribuzioa) eta Ekonomiar Jarduaren Gaineko

Zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte zabalik. Argibideak udal bulegoetan.

KINTADAK

► **1955**ean jaiotako enafaria urriaren 31n Antxonin. Izen-ematea bertan.

► **1940**an jaiotako enafaria azaroaren 7an Antxonin jate-txean. Izen-ematea 943 76 34 36 (Mari Tere) eta 943 76 45 75 (Begoña) telefonoz bertan.

► **1947**an jaiotako enafaria azaroaren 7an Tartufo jate-txean, 21:00etan. Izen-ematea 943 76 35 51 zenbakian.

► **1995/96** ikasturtean UBI n ibilitako enafaria azaroaren 14an Antxonin. Eguenean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 19:30etan. Izen-ematea (1.000 pezeta-ko aurrerapena) Antxonin.

► **1927**an jaiotako enafaria anaiarteko eguna azaroaren 15ean. Hildakoen oroimenezko meza 13:00etan Santa Marinan eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezeta) Antxonin azaroaren 10a baino lehen.

► **1962**an jaiotako enafaria urriaren 31n Sirimiri jate-txean. Izen-ematea (1.000 pezeta-ko depositoa) Sirimirin bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

El laberinto rojo

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Dr. Dolittle

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

El hada novata

Domeka: 11:30.

Hombres armados

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

La trama

Eguakitza: 22:00.

Los vengadores

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Siempre queda el amor

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Los años barbaros

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 17:00, 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Caracter

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

AZKOITIA. Baztartxo

Las ratas

Eguakitza, zine-kluba: 22:00.

Deep rising

Zapatua: 22:00.
Domeka: 16:45, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

EL LABERINTO ROJO

Zuzendaria: Jon Avnet.

Aktoreak: Richar Gere, Bai Ling, Bradley Whitford.

Jon Avnet zuzendariak (*Tomates verdes fritos*) Txinan girotutako istorio bat landu du oraingoan. *Jack Moore* telebista bateko direktibo bat (Gere) satellite bidezko akordio bat negoziatzen ari dela, berarekin dagoen emakumea hil ondoren, arazo bat baino gehiago izango du hango sistema judizialarekin.

DR. DOLITTLE

Zuzendaria: Betty Thomas.

Aktoreak: Eddie Murphy, Kristen Wilson, Kyla Pratt.

Eddie Murphy aktoreak bere trebezia agertzeko egindako filme honek izugarriko arrakasta lortu du takilan. *Dolittle* (Eddie Murphy) medikuak bere ingurukoei sinestezina iruditzen zaien gaitasuna dauka, era guztietako animaliekin hizketaldiak izaten dituelarik...

HOMBRES ARMADOS

Zuzendaria: John Sayles.

Aktoreak: Federico Luppi, Damian Delgado, Dan Rivera Gonzalez.

John Sayles estatubatuarak (*Lone star*) kritika zein publikoaren oniritzia jaso zuen iazko Donostiako Zinemaldian Ertamerikan girotutako filme honegatik. Jubilatzean dagoen *Humberto Fuentes* medikuak (Luppi) bere ikasleak izan direnak topatzeari ekingo dio, bidean traba ugari jarriko diotelarik...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.



Lora lehorren ikastaroa

Noiz: Araroaren 11tik abenduaren 23ra arte
18:30etatik 20:30etara, eguaztenetan

Prezioa: 3.000 PTA
Jarduneko bazkideek eta 3.500 gainontzekoek
Matrikula epea: azaroaren 6a.
Informazioa: Jardun elkartearen 943 76 08 19 / 943 76 36 61.



Berrigara Gida 99



Berrigara Gida 99, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida pres-tazen dihardugu. Aitziber Aretxaga (argazkian) ari da komer-tzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasotzen dihardu.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzialénak eta par-tikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 99 liburutxoak: **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi badu-zu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke (943 76 03 97).

Berrigara Bergarako astekaria

Udaleko tasa, zerga eta prezio publikoak %2,1 igoko dira 1999an

Uraren erreziboa gutxiago eta kanposantuarena gehiago

Ordenantza fiskalak edo herritarrek Udalari ordaintzen dizkioten tasak, zergak eta prezio publikoak, % 2,1 (aurtengo urterako aurreikusitako KPI) igotzea erabaki zuen Udalbatzak astelehenean.

Igoera aho batez onartu zuen Udalbatzak, baina oposizioa kanposantuko zerbitzuaren, Udal Euskaltegiko matrikulazio tasaren eta zabor bilketaren zerbitzuaren igoeraren kontra azaldu zen. Kanposantuko zerga %10 igoko da, Udal Euskaltegiko matrikulazio tasa, ostera, %10,5 eta zabor bilketarena, azkenik, %4,04 (60 pezeta).

Kanposatuko zerbitzua oso defizitarioa ei da Udalarantz eta horregatik izango du hain igoera nabarmena. Halere, igoera hau aseguru etxeek hartuko dute bere gain hein handia baitean, herritar gehienek hauekin kontratatuta baitaukate zerbitzu hau. Bestalde, HABEk Udalari gero eta diru laguntza gutxiago ematen diolako igo dute Udal Euskaltegiko matrikulazioaren tasa. Azkenik, zabor bilketaren zerbitzua 60 pezetan igotzea Deba Garaiko Mankomunitateak ezarritako igoerak eragin du.

Uraren erreziboa %1,28 igoko da

Uraren erreziboa hiru hilabetetik behin kobratzen



Kanposantuaren zerbitzua izango da igoera handiena izango duena, %10 igoko baita.

ARTXIBOA

du Udalak eta bertan ura, zaborra eta estolderia jasotzen dira. Urak ez du igoerarik izango, zaborraren zerbitzua 60 pezeta igoko da eta estolderiarena, berriz, 20 PTA (%2,18). Honenbestez, datorren urtean uraren erreziboa 6.313 pezetakostako da (%1,28 igoko da).

Batzuk ez dute igoerarik izango


Bestalde, ekonomi jardueren gaineko zerga ez da igoko, errola %4,3 igoko dela aurreikusi baitu Udalak. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ere ez da igoko, gaur egungo ordenantzetan jasotako kuotak Foru Arauak baimentzen dituen altuenak di-

relako eta ezin daitezkeelako igo. Horretaz gain, Udal liburutegian eskaintzen den Internet zerbitzuak ere ez du igoerarik izango; datorren urtean ere 200 pezeta orduko kobratzen jarraituko dute. Gainontzekoetan, esan bezala, %2,1 igoko dira ordenantza fiskalak, baita trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak ere. Adidibe bat jartzearen, 1.600 zentimetro kubikoko automobiletan (Bergaran gehienak), 8.335 pezetatik 8.505 pezetara igoko dira.

Beste hainbat gai Plenoan

Asteleheneko Plenoan, beste 10 puntu ere onartu ziren. Honako hauek dira horietako batzuk: San Migel kaleko 11. zenbakiko behe

eskubiko biltegia erostea, Udal liburutegiko fondoan zabalkunderako Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren arteko hitzarmena sinatzea, Jaurlaritzarekin lankidetzahitzarmena sinatzea Langai zerbitzuari buruz edota Angiozar auzoko Txikasoro Gaineko basoko egurraren aprobetxamendua arautuko duen baldintza ekonomiko, administratibo eta teknikoak onartzea. Guztiak aho batez onartu zituen Udalbatzak, azken puntu hau izan ezik. Honetan HB abstenitu egin zen. HBren iritziz, Udalak baso honetako egurrarekin diru gehiago jasozakeen eta Udalak dituen 200 hektarea inguru baso, hobeto zainduz gero, diru iturri garrantzitsua izan zitekeen. B



Uhola erreka bideratzeko lanak uste baino polikiago doaz eta bidegurutzak moztuta jarraitzen du.

San Antonioko bizilagunak kezkatuta erreka lanengatik Obrak poliki doaz eta bidegurutzak itxita jarraitzen du

Uhola errekaren bideratze lanak direla eta, kezkatuta daude San Antonioko bizilagunak. Hasieran aurreikusitako epeak ez dira betetzen ari eta uste baino polikiago doaz lanak. Abuztuan ekin zioten erreka bideratze lanei eta San Antonioko bidegurutzetik Martoko eta Zubiaurre alderarako bidea moztu egin zuten. Hasierako planen arabera, pare bat hilabeterako itxita egotea au-

reikusitako epeak ez dira betetzen ari eta uste baino polikiago doaz lanak. Abuztuan ekin zioten erreka bideratze lanei eta San Antonioko bidegurutzetik Martoko eta Zubiaurre alderarako bidea moztu egin zuten. Hasierako planen arabera, pare bat hilabeterako itxita egotea au-

reikusitako epeak ez dira betetzen ari eta uste baino polikiago doaz lanak. Abuztuan ekin zioten erreka bideratze lanei eta San Antonioko bidegurutzetik Martoko eta Zubiaurre alderarako bidea moztu egin zuten. Hasierako planen arabera, pare bat hilabeterako itxita egotea au-

reikusitako epeak ez dira betetzen ari eta uste baino polikiago doaz lanak. Abuztuan ekin zioten erreka bideratze lanei eta San Antonioko bidegurutzetik Martoko eta Zubiaurre alderarako bidea moztu egin zuten. Hasierako planen arabera, pare bat hilabeterako itxita egotea au-

Jose Badiola "Itxumendi" eguakitzean hil zen

Jose Badiola, "Joxe Itxumendi" bezala ezagunagoa, joan zen eguakitzean, hilak 16, hil zen 72 urte zituela Elosun. Urte askoan Herri Irratiko eguraldi iragarlea izan zen; horregatik, oso ezaguna zen herritarren artean. Jose Badiolak ez-tarriko minbizia zuen. Elosun eman zioten lur.

Ikasten edo lanean ez dauden gaztetoxei deia

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak deia luzatu nahi die 16 eta 19 urte bitartean duten herriko gazteei, ikasten edo lanean ari ez badira, nahi badute, Udaletxeko Ongizate Saitetik pasatu daitezten goizeko 10:00etatik 13:00ak bitartean. Udalaren asmoa adin horietan eta ezer egin barik dauden neska-mutikoekin bildu eta euren iritziak, kezkak edo beharrak jasotzea da, ondoren, euren bideratutako ikastaroak edo beste zerbait antolatze-ko.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Domekako bozketen zain, gaur, ostirala, amaituko da hauteskunde kanpaina

Gaur gauerdian ixilduko dira hauteskunde kanpainako hotsak. Bergarari dagokionez, Euskal Herritarrok-ek emango dio amaiera hauteskunde kanpainari, gaurko, 19:30etarako, San Martin plazan iragarrita da goen mitinarekin.

Alizia Stürtze eta Jose Maria Elosua izango dira hizlari, bertsolariak eta txalaparta ere izango dira, eta preso, errefuxiatu eta deportatuei omenaldia egingo zaie. Euskal Herritarrok taldeak bizikleta martxa egin zuen joan zen zapatuan herriko kaleetatik eta kanpainan zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte: Euskal Herrian Euskaraz taldeak "Bozkatu bai euskarari" lemapean eta Gestorek egindako enkarteladetan parte hartu dute, megafonia-kotxe berezia erabili dute...

Bestalde, eguaztenean Eusko Alderdi Jeltzaleak eta PSE-EEk ekitaldi politikoak burutu zituzten Bergaran. Joseba Egibar Eusko Alderdi Jeltzaleko Gipuzkoako zereन्द्रaburuak eta eta Nuria Lopez de Guereñu zerrendan bosgarrenak, mitina eman zuten Miguel Altuna Institutuan. Hauekin batera, Victoriano Gallastegi eta To-



EAJko hautagaiak eguaztenean Bergaran. Behean, EHko bergarar hautagaia.

masa Zabaleta EAJko zerrendetan doazen bergararrak ere izan ziren ekitaldian. Nuria Lopez de Guereñu munduaren globalizazioaren ondorioz, euskal gizarteak integrazioerantz jo behar duela azpimarratu zuen; Joseba Egibarrek, berriz, domekako bozketen aurrean EAJren erronka Legebiltzarrean gaur egun dituen 22 eserlekuei eutsi edota bat irabaztea dela esan zuen.

Jesus Egiguren, Gemma Zabaleta eta Blanca Roncal PSE-EEko Gipuzkoako zerrendetan bigarren, hirugarren eta bosgarren doazena, bestalde, Bergarako al-

derdikideekin bildu ziren eguazten ilutzean PSE-EEko egoitzan. PPkoak ere Bergarako kaleetan zehar ibili ziren propaganda banatzen eguazten arratsaldean.


Hauteskunderi buruzko orri berezia astelehenean

Esan dezagun, bestalde, hauteskunde biharamonean, astelehenean, Bergarako emaitzei buruzko orri berezia kaleratuko duela BERRIGARAK. Bertan, Bergaran jaso diren botoak, zonaldeka, azken hauteskunde autonomikoetan indar politiko bakoitzak izan duen boto bilakaera, ingu-

ruko herrietako emaitzak edota alderdi politikoetako bozeramaleen balorazioak jasoko dira. 5.000 ale kaleratuko dira eta doan banatuko dira egunkari saltokietan, okindegietan, aurrezki kutxa eta banketxeetan, ikastetxeetan e.a.

Mikel Aranzabal: EHren hautagai bergararra

Orain dela bi aste alderdi politiko ezberdinen zerrendetan doazen hautagai bergararren berri eman genizuen BERRIGARAN. Orduan, Euskal Herritarrok taldeak Araban aurkezten duen zerrendan 12. postuan doan Mikel Aranzabal ez genuen aipatu. Mikel angiozartarra da baina azken urteotan Aramaion bizi da. Demokrazia garaiko lehen legealdian HBko zinegotzi izan zen Bergaran eta Aramaion ere izan da. Fagorreko langilea da eta 45 urte ditu. B



KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artetale 6 Tf.: 943 76 13 29

Berrigara

340 zenbakia.
1998ko urriaren 23a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetzatzailea: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oriati).

Azaleko argazkia: Mikel Olabarria.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

MILA ESKER

Atzerapenarekin bada ere (normalean abuztuan izaten da), BKEko futbol talde nagusiaren aurkezpen afaria egin zen joan zen zapatuan. Urtero afari ederra oparitzen digu Antxoni jate-txeak taldeko jokalariei, entrenatzaile eta ordezkariok, eta elkarteko zuzendaritzako kideok (40 bat lagun).

Postre garaian, Carlos Arnaizek, elkarteko presidentea, opari bat eman zion Antxoniri eta futbol taldeko jokalariei batek bertso bat eskaini zion:

*Gure artean zerbait
ospatzen denean
beti hartzen gaituzu
umore onean.*

*Zenbat bazkari eder
Antxonirenean!
opari txiki hau da
zure omenean.*

*Mila esker, Antxoni,
denon izenean.*

Bestalde, afarian jokalariei eta zuzendaritzako kideak bildu ginela aprobeztatu, azken urteotan masajista lanak egin dituen Irene Un-

zueta agurtu eta elkartean egindako lana eskertu gunion bildutako gutziek.

BKEko Zuzendaritza

EOLIKA? BAI, ESKERRIK ASKO

Aurreko astean BERRIGARAN zentral eolikoari buruzko artikulua irakurri nuenean harrিতa gelditu nintzen. Ekologista taldeak gure mendietan generadore eolikoak jartzearen aurka? Ezin dut sinistu ezta onartu ere.

Garbi dago bizitza tokatu zaigun munduan oreka ekologikoa denon artean suntsitzen ari garela eta zorritzarekin egoera txarrera doala. Egoerak onera egin dezan, egin beharreko lana luzea, gogorra eta neketsua izango da. Gauza bat oso garbi dago: ekologia babes-teko salneurri haundi bat ordaintzeko prest egon behar garela, baina agian bidezkoa izango da epe erdi eta luzera lortu dezakegunarekin.

Hemendik, beste energia iturri zikinaren ordean, zentral eolikoak kokatzearen alde nagoela esan nahi dut. Zorritzarekin, mendiak industrializatzea eta kutsadura bisuala penagarriak izango dira, baina oraindik tristemagoa izango litzateke, adibidez, menditik ibiltzen joatea eta ikustea, nahiz eta urrun, zentral termiko bat ke mordo bat botatzen atmosferara. Energia garbiarekin lan egiteak, ondorio positibo gehiago dituela uste dut.

Agian, hemendik urte askotara energia errekurtsu garbi bat eta inolako ondorio negatiborik gabekoa agertuko da. Orduan, zentral erraldoiak kendu ahal izango dira, mendiak identitate propioa berenganatuz. Bitartean, lehengai gutxiago gastatuko dugu eta CO2-aren emultsioa murriztuko dugu. Ez dakit guk ikusi ahal izango dugun (baietz espero dut), baina datorren belaunaldiak eskertuko digutela uste dut.

Ion Suinaga

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Zer eskatuko zenioke Lehendakari berriari?



Francisco Miranda

Ondo gobernatu dezala eta lanpostuak sor ditzala. Bakea lortzeari ere lehentasuna emango nioke.



Virtudes Garcia

Hainbeste gauza eskatuko nizkioke... Gazteria adibidez kontutan izateko eskatuko nion, aktibitate gutxi izaten dituzte eta.



Diego Rajado

Guztiontzat lana izatea uste dut garrantzitsuena dela. Eta lan baldintzak ere onenak izan daitezen, bizitza kalitatea hobetzeko.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.



Leonor Martinez

Guztion arteko batasuna lortzea, bakea lortzeko. Jendea banatu baino, benetako bakea lortzeko batasuna izatea beharrezkoa da. Lana sortzea ere eskatuko nioke.



Iñaki Aginagalde

Ea bakea eta beste alderdiekin adiskidetasuna lortzen duen. Langabezia, marjinala eta horrelakoak ere zaintzea eskatuko nioke.



Edurne Begiristain

Jende gaztearendako lana sortzea, baldintza onekin baina, horri lehentasuna emango nioke. Besterik? Bakea lortzea ere oso inportantea da.

Ibon Garciak deitu zigun martitzenean erre-dakziora. Ibon zinezale amorratua dugu eta bere ustetan filme arrakastatsu bakoitzeko emanaldi gehiago programatu beharko litzuzke Novedades aretoak. Joan zen astean, esaterako, *Salvar al soldado Ryan* eman zuten baina luzea zenez zapatu eta domekan bina sesio besterik ez ziren izan. Astelehenean eta martitzenean, berriz, bakarra. Jendeak erantzungo lukeela jakinda, filme horien emanaldiak eguaztenera arte luzatzea hain zaila izango litzatekeen jakin nahi luke Ibonek. Bestalde, astelehen gauetan filmeren bat programatzea ondo ikusiko luke Ibonek.

■ ikuspuntua: **nora palmitano**

Pinochet eta Garzon

Ezer baino lehen argi gera dadila benetan poztu ninduela gizon honen atxiloketak. Ez dit inolako lotsarik sortzen etorkizunik beltzena opa izateak. Ea behingoz eta betiko, mundu honetan *persona non grata* izendatzen duten, eta geratzen zaizkion egunak egindako guztiaz lotsaturik igarotzen dituen. Besterik ez du merezi eta! Txalotu beharko dugu Garzon epailearen estradizio-eskaera.

Hori argi utzita, atxiloketa honen balizko zergatiaz hausnartzea ez legoke gaizki. Adi dago epailea bere inguruan gertatzen diren



Ez zaizue iruditzen, besteren begian edozein samar argiegi ikusten duela Garzon epaileak? Esan nahi dudana zera da: Pinocheti egotzi dakizkiokeen delituak, besteak beste, ez-legezko atxiloketak, torturak, bahiketak, erailketak, komunikabide, unibertsita-

gertakariez, baita urrunagokoez ere.

Nork eta Garzonnek atxilotu. Eta mundu osoko komunikabide guztien titular nagusiak bereganatu. Bera berriro, "super-epailea".

te eta irakaskuntza zentroen zentsura eta itxierak daude. Ez al dute antz gehiegi Garzonnek GAL auzian, EGIN auzian eta AEK auzian izan duen eta duen partehartzearekin?

Baina, Pinochet atxilotuta, Erresuma Batuari estradizio-eskaera eginda, atentzioa bereganatu du, eta berbideratuko du. Errespetu eta izen ona berreskuratu nahi du. GAL, EGIN, eta AEK auzien aurka egon garenok, -Euskal Herrikoak eta baita mugetatik kanpoak ere-, oraingo honetan Garzon epailea txalotzera behartuta gaude.

Halere, ez dezagun memoria gal. Ondo dakigu zein den gizon hau, zein interesen arabera mugitzen den, zertarako gai den. B

■ asteko menua: **agirrebeña jatetxea**

Esparragoak espinaka saltsarekin



MIKEL ANDONI OLABARRIA,
AINTZANE REMENTERIA
eta IKER BEITIA
Agirrebeña jatetxeak

OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- Oliba-olioa
- Berakatz
- Ganbak
- Espinakak
- Esparragoak
- Gatza

PRESTAKETA

- Espinaka orriak egosi.
- Berakatz ale batzuk eta ganbak oliba oliotan frijitu.
- Aurretik egositako espinakak gehitu eta, ondoren, okela salda eta esnegain likidoa gehitu, norberaren gustura, eta guztia birrindu.
- Esparragoak irinetan pasatu, gatza bota eta frijitu.
- Mahaira ateratzeko, saltsa platerean ondo zabaldu eta esparragoak gainean ipini.

■ adituen esanetan

Piroplasmia

HUMBERTO NOGUEIRA, *albaitaria*

Kaparrak odola xurgatzen duten kanpoko parasitoak dira eta, aldi berean, gure txakurrei parasitoren bat transmititu diezaiokete. Parasitua globulo gorrietan sartzen da eta bertan ugaltzen hasten da globoak apurtu arte. Partikula berri bakoitza beste globulo batera zuzentzen da eta prozesua errepikatzen du. Modu honetan animaliak egun gutxiaren barruan globulo gorrien hondamen ikaragarria jasaten du. Metabolismoak sekulako porrota izan dezake, zenbaitetan animalia heriotza ematen delarik.

Halere, garaiaz aplikatutako tratamenduarekin emaitza onak lortzen di-

ra. Beranduago ere eraginkorra izan daiteke baina lesio organikoek ezinezkoa egiten dute animalia guztiz erreku-peratzea, gibela eta gultzurruna batik bat oso kaltetuak gertatzen direlako. Kapar guztiek ez dute gaisotasuna transmititzen. Gerta daiteke 100 kapar izatea eta ezer ez gertatzea baina nahikoa da kutsatutako baten pikatada arazoa izateko. Gomendioa txakurra kaparrengatik babestea izango zen. Era berean, kaparrak izaten direnean modu egokian kentzea eta hurrengo hamar egunetan sintomak (txakurra triste eta goserik gabe, txisa gorria duenean) agertzen diren zaindu. B

■ bergarako gordailutik

ZENBAT JAIEGUN!

Imanol Sorondo

Kalahorra eta La Kalzadako gotzaia den Piñerotar Juanek, VIII. Urbano Aitasantuak bidalitako agindu bat aditzera eman du 1642.ean. Alegia, jai egun asko direla eta jendea marmarrean dabilela lanerako egunak gutxi daudelako, soro-zelaiak behar bezala lantzen ez dituztelako, eta behin baino gehiagotan erlijioaren beharrak ezin beterik gelditzen direlako. Hori dela eta Aitasantuak jai batzuk kentzea erabaki du, eta hemendik aurrera hauek gordetzeko agindua ematea:

Lehendabizi: urteko igande guztiak Jesusen igokunde, Piztueraren hiru egunak, berdin Espiritu Santuarenak eta Gorputz eguna.

Gainera: Urtarrilaren 1ean, Urte-Berri. 6an, Jaunaren agerkunde.

Otsailaren 2an, Ama Mariaren Elizan sartzea; 24an Matias Apostolua.

Martxoaren 19an, Jose Santua; 25ean Andre Maria Martiko.

Maiatzaren 1ean, Pilipe eta Santiago apostoluak; 3an, Gurutze Santua Aurkitzea; 12an, Kalzadako Domingo Santua.

Ekainaren 24an, San Juan; 29an, San Pedro eta Pablo santuak.

Uztailaren 25ean, Santiago Apostolua; 26an, Santa Ana.

Abuztuaren 10ean, Lorentzo Martiria; 15ean, Mariaren jasokunde; 24an Bartolome Apostolua; 31n, Emeterio eta Zeledonio martiriak.

Irailaren 8an, Amabirjinaren jaiotza; 21ean, Mateo apostolua; 29an, San Migel.

Urriaren 28an, Simon eta Judas santuak.

Azaroaren 1ean, Santu Guztien eguna; 30ean, San Andres apostolua.

Abenduaren 21ean, Tomas apostolua; 25ean, Jesusen jaiotza; 26an, Doneztebe lehen martiria; 28an, Haur martiri errugabeak; 31ean, Silibester Aitasantua.

Bestalde: nahi izanez gero, herri bakoitzeko zaindaria. Eta Espejo gozai jaunak 1722. urtean eginiko ikustaldian agindu zuenez Bergaran San Roke (abuztuaren 16an), Santamaina (uztailaren 18an) eta Agata Deuna (otsailaren 5ean).

Jai asko, beraz, urritu egin zituzten arren. Zenbat ziren lehen orduan? B



Osintxuko haur eskola martxan

Orain dela bost bat urte itxi ondoren, **Osintxu-ko haur eskolak** atekak zabaldu ditu berriz ere aurtengo ikasturtean. Haur txikiak dituzten gu-

raso talde batek eraginda, duela pare bat astetik martxan da berriz. Eskola egokitzeko lanak burutu ondoren, 2 eta 3 urteko 6 ume ari dira bertan, **Iruñe Zelaia** bergarar irakaslearekin batera. San Martin ikastxeko gela moduan funtzionatu du eta etorkizunean Osintxuko 6 urtera arteko haurrek bertan ikastea aurreikusten da. Argazkian, **Amaia, Garazi, Jokin, Xabier, Pello** eta **Daniel** andereñoarekin ikus ditzakezue.

Pintura erakusketa plazan

*Eguraldi ona eta Orioko taldeari eskeinitako harrera aprobetxatuz, ikusle asko izan zituen Bedelkarrek zapatuan Plazan antolatutako pintura erakusketan. Udaletxe ondoan jarritako paneletan **Mari Paz Alustiza, Juan Jose Altuna, Edurne Eraña eta Dani Laskurain** margolarien ikasleek eginiko margoak zintzilikatu ziren eta, esan bezala, asko izan ziren koadroak ikustera hurbildu zirenak. Bistan geratu zen margo irakasleek ikasle bikainak dituztela...*



Oriotarrei harrera bikaina

Badirudi Orio Arraun Elkartek barrualdean uste baino jarraitzaile gehiago dituela, izan ere jende ugari bildu zen zapatuan Plazan oriotarrei ongi-etorria egiteko. Otsein babeslearen lantegia bisitatu ondoren, **Kanpa** traine-rua erakutsi zuten Plazan eta **Xamatzeko dantzariak** aurrerakua eta arkua egin zieten arraunlariei. Udaletxeko Pleno aretoan egindako harreran, **Jose Julian Olasagasti** taldeko pre-

sidenteak Hiribildu-Agiria jaso zuen **Victoriano Gallastegi** alkatearen eskutik eta Olasagastik, aldi berean, opari bana entregatu zien alkateari eta **Fermin Mendizabal** Mayc-eko zuzendariari. Olasagastik jasotako harrera eta Otsein laguntza eskertu zuen. Umoretsu, etorkizunean, 1,80m.tik gorako bergarar mutilak taldean izateko itxaropena azaldu zuen. Denboraldian zehar lortutako 16 ikurriñak Udaletxeko balkoietan eskegi ziren eta **Ignacio Gonzalez Escala** Orkestak eskeinitako piezekin amaitu zen ekitaldia. Ondoren, **Pertxa** elkartearen bazkaria izan zuten oriotar arraunlariek. Ea datorren urtean aurtengo denboraldi bikaina errepikatzen duten!!



Pakearen alde,
enpleguaren alde,
... EUSKADIREN ALDE

EZKERRAREN ORDUA



Elkartasunaren botoa

ezker batua



Artekalea 1, BERGARA.

*Pizza
aukerarik
zabalena!*

ENTZALADAK

ENTZALADA MISTOA. 575
ARROZ ENTZALADA. 600
OILASKO ENTZALADA. 625
PASTA ENTZALADA. 600
GANBA KOKTELA. 650



PIZZAK



MARGARITA (Oreganoa, piperbeltza, albaraka). 750
TIPULA. 850
FUNGHI (Txanpinoiak). 950
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 950
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1100
ROKFORT. 925
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1050
NAPOLI (Antxoak, olibak). 925
TONNO (Atuna). 950
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1050
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1100
PROSCIUTO (York urdaiazpikoa). 975
MEXIKARRA (Okela pikatuarekin eta berakatzarekin). 1025
4 STACCIONE (York urdaiazpikoa, alkatxofak, txanpinoiak). 1050
BOLOGNESA (Okela pikatua). 1025
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1050
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1050
ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza, pikillo piperra). 1050
BAKILAOA. 1100
TROPICALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1050



Orain ETXERA
eramango dizugu

30 MINUTUAN!

943 76 72 00

telefonora deituz!

PASTAK



SPAGHETTI BOLOGNESA. 875
SPAGHETTI CARBONARA. 875
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN
ETA PIKANTEAREKIN. 875
FUSILLI ROSSA. 900
TAGLIATELLE. 900
RIGATONI 4 GAZTA. 900
UKONDOA ESPINAKA SALTSAREKIN. 900
OKEL eta BARAZKI RAVIOLIAK. 900
NIDOS AL PESTO. 875
LASAGNA. 950
BARAZKI KANELOIAK. 900
KALABAZIN BETAOK. 900
ARRAIN LASAGNA. 950

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 24 zenbakia. 1998ko urriaren 23a.

Uso pasea zabalik hilabetez

37 ehiza-postu ipini eta zozkatu dira Gorla-Trekutz inguruan

Hemezortzi bat urte daramate Eperra Ehiza Elkarteko kideek ehiza postuak ipintzen. Ehiza elkarteko lehendakariak, Jesus Odriozolak, adierazi digunez "ordura arte, orain 37 postu dauden lekuan 150 bat lagun aritzen ziren ehizan inongo kontrolik gabe eta istripu bat baino gehiago izan genuen. Inguru horretan jende asko ibiltzen da oinez eta ez zen batere segurua ehiztariak aritzen ziren bezala jarraitzea. Hori dela eta, postuak legeztatu ziren eta Ehiza Federazioaren eta Aldundiaren arauetara moldatuz gaur egun postu kontrolatuak jartzen dira".



Urriaren 9an zozkatu ziren ehiza postuak Eperra Elkartean. Bazkide diren 80 ehiztariak hilabetez arituko dira uso pasean. Dena legearen barruan egiten duten arren, ehiztariak arazoak izaten dituzte urtero egun hauean. Aurten ere, eta bi postu ipinita zituztenean, horietako bat bota egin zieten. "Urtero apurtzen dizkigute. laz eta orain dela bi urte denak bota zizkiguten. Horrek gastu ekonomiko handia eragiten digu eta egunen batean ezingo diogu aurre egin horri". Jesusen iritziz "ehiztarien aurkako salaketaren bat, manifestazioak eta horrelakoak egin nahi dituenak egin ditzala, baina postuak botatzen lortuko duten bakarra atzera lehengora itzultzea izango da. Nik galdera bat egingo nieke: zer da hobe lehengoa edo oraingoa?". Bere ustez, egunen batean Eperrak ezingo ditu postuak ipini eta orduan ehiztari bakoitzak bere kasa jardungo du inongo kontrolik gabe.

Ehiza postuak botatzearekin batera behin baino gehiagotan kartutxoak eta antzerakoak aurkitu izan dira postuen ondoan. Jesus Odriozolari, ordea, horrek ez dio beldurrik ematen. "Jakin badakigu beste leku batzuetatik jasotako kartutxo azalak izaten direla eta guri irudi txarra emateko botatzen dituztela gu aritzen garen inguruetan. Ehiztariak ere bagoaz

ikasiaz hondarrak jaso behar direla eta gure zikinak jasotzen; ez bakarrik postuetan gaudenean, bestela ere bai. Poli-ki-poliki baina jendea ohitzen doa".

Inguruetako ehiza

Uso paseaz gain ehiza irteerak ere antolatzen dituzte ehiztariak. Aze- →



Eperra Elkarteko kideak ehizan egindako zenbait piezarekin.

"Ehiztarien aurkako salaketak, manifestazioak eta horrelakoak egin nahi dituenak egin ditzala"

JESUS ODRIEZOLA

Urriak 25: Lizarratik Zanudiora



**Gotzon
Iparragirre**

Joan zan irai-
lian Lizarran
zenbait alderdi
politikok hartu-
tako erabakixak
atzera bueltarik
ez daukan bide
berrixak urratze-
ko balioko da-
ben itxaropen
osua daukat.

Sortu zittuan espektatibei ezin ja-
kue bizkarrik emon.

Alkari muturka urtetan ibili di-
ranak dokumentu adostu bat firma-
tzeko gai izatiak herri honetako as-
koren gain bizi poza bera be gehitu
dabela esango nuke. Atia, eta ez
nolanahikua gainera zabaldu jaku.
Eta zer pasauko lehenengo ate ho-
rretatik, eta XXI. mendeko: Bai eus-
karari kanpainia. Berau, Zamudion
hil honen 3an izandako saiuan aur-
keztu zan. Han izan ginanoi barruan
zeozer mobidu jakun; akordauko za-
rete "...eta bai, eta bai nik euskarari
bai ta bai....", San Mameseko jai-
aldi ikaragarria,.....20 urte badira
hartatik.

Aurtengo udazkenian egingo
dan kapainiakin espiritu (zenbat es-
piritu gaur egungo gizartian) hari
heldu nahi jako, euskerian normal-
kuntziaz bultzada formala emoteko.
Horra ba politikuak gizartiaz eskini-
ttako akordixua batetik, eta gizar-
tiak politikuei egingo jauen eskaeria
bestetik bixak momentu berian dan-
tzan. Emon deixogun ba partitura
formala dantza horri. Urriak 25ian
be, bai Lizarrari, bai Zamudiori eta
BAI EUSKARARI!

→ riak eta basurdeak ehi-
zatzeko izaten dira irteera
hauek. Elosu, Bergara eta
Antzuola inguruetan urtero
hiru edo lau talderen artean
60 bat azeri ehizatzen dira.
Basurdeak ere ikusi izan di-
ra inguruetan. Joan zen as-
tean esate baterako Saras-
keta baserriko artoa jaten
zuen basurdea harrapatu zu-
ten.

Hala ere, badira orain-
dik ehizatu ezin izan dituz-
ten beste basurde batzuk.
Etxezurikoek San Blasen du-
ten artasoro inguruan eta
Iralatorren eta Altamira ba-
serrietan dabiltzanak, hain
zuzen ere.

Antzuolatik ere irtetzen
dira herriko ehiztariak basur-
deak ehizatzen. Eperrakoak
Errioxan dagoen Camerose-
ko erreserban aritzen dira eta Oskara
(Huesca) ere joan ohi dira.

Erbiak ugaltzen

Joan zen abuztuan laga zituzten as-
ke lehenengo erbiak eta orain beste 34
ekarri dituzte San Martzialen jarri duten
itxiturara. Jesus Odriozolak azaldu digu-
nez "inguruetan ez zegoen erbirik. Nik
esango nuke orain dela 35 urte ez dela
erbirik ikusten. Oñatiko ehiztarien eki-
mena ondo atera zela ikusi ondoren Al-
dundiarekin eta Federazioarekin harre-
manetan jarri ginen. EKOS enpresakoek
erbiak kontrolatzen dituzte eta hilabete
barru edo aske lagako ditugu. Lehen ere
izan genituen erbiak, orain dela 14 urte



San Martzialen 34 erbi dituzte Eperrakoak

edo, baina ez zirenez hemengoak ez zen
ondo atera. Oraingoak Altsasutik ekarri
ditugu. Gaur egun erabat debekaturik
dago erbiak ehizatzea eta horrela izango
da erbiak ugaltu artean, behintzat".

Ehiztari txapeldunak

Orain dela hilabete Zanbranan izan
ziren herriko txapelketa jokatzeko, Coto
del Castillon. Lehen Antzuolan antola-
tzen zuten baina bi urte daramate Coto
del Castillon egiten. Txapelketako garai-
leek zonaldeko txapelketa jokatu zuten
eta irabazleek Gipuzkoakoan arituko di-
ra: seniorretan Iñaki Toledo, juniorretan
Josu Odriozola, eta jubilatuetan Bitoria-
no Barrena "Altamira" eta Txomin Lete.

*Erabat debekaturik dago erbiak ehizatzea eta
horrela izango da erbiak ugaltu artean*

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behean ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Aldizari rustikoetan
espezializatuak



**Bakea nahi izatea
ez da nahikoa.
Ekinaren ekinaz
lortu behar dugu.**



Joseba Egibar

*Juan Jose Ibarretxe
Lehendakariako Hautagaia*

Asko da egiteko daukaguna.

Bakea egiteak eta adiskidetzak elkarrizketa eta tolerantzia

esan nahi dute. Eta hitz egitea eta elkar ulertzea dira ditugur

arma bakarrak horretarako. Ideia guztiak lasai eztabaidatzeko garaia da, etorkizuna kontutan izanda

denon partehartzearekin bultzatuko dugun bake-proposamen zehatza eta adiskidetzekoa eginez

Irtenbideren bat badagoela sinesten badugu, aurkituko dugu. Horregatik, botoa emateaz gain zeoze

gehiago behar dugu. Zure ilusioa alegia.



www.ibarretxe.com

Eskerrik

MINER
ardak

Larrañaga
BANATZAILEA



QUESERIA
EL PASTOR VASCO

Bergarako Udala



Artzamendi eraikuntzak



Lacor



Artatse elkarte

Urbieta iturgintza



Zabaleta errotuloak



Lasa jatetxea



Zumelaga jatetxea

asko



*BEDELKAR-eko
harakinon izenean:*

Urcelay

Jose Luis Leturia

Jabier Lazpiur

L.M. Rezola

J.M. Zurutuza

Josu Leturia

Jon Leturia

Sebastian Imaz

Igarza



Antxoni jatetxea



Agirrebeña jatetxea



Azpeitxi jatetxea



Egon kafetegia

XAMATZ

dantza taldea



ARITZETA

abesbatza

KARATE FEDERATUA ETA ESGRIMA GIARTZU GIMNASIOAN



Marisabel Hurtadok zuzentzen duen Giartzu gimnasioak, urteroko karate-ikastaroa eskaintzen du, aurten eskola kirolaren bitartez bideratua. Bestalde, lehen aldiz, esgrima ikastaroa ere badago.

KARATE FEDERATUA

BERRIGARA. Karatea kirola da?

Marisabel Hurtado. Karatea arte bat izateaz gain, oso kirol osoa da. Txinan garatu zen, geroxeago Okinawa irlan kokatu eta poliki-poliki estilo ezberdinetan mundu guztira zabaldu zen.

B. Zer aportatzen digu eta zeintzuk dira kirol honen abantaila nagusiak?

M. H. Karateak abantaila fisiko zein moral garrantzitsuak ematen dizkigu: izaera gogortzea, segurtasuna, autokontrola eta erresistentzia. Kirolariek inolako arriskurik gabe egiten dute borrokan. Karateka baten lehenengo eginkizuna aurkaria ez lesionatzea da. Horregatik, beharrezkoa da aurkaria ez ikutzea, kolpeak eta karate konbinazioak aurkariaren gorputzetik milimetro batzuetara geldiaraztea.

B. Zein adin eta sexutako jendeak praktikatzen du?

M. H. Giartzun, momentu honetan, karatea 5 urtetik 15 urte bitartera planifikatua dago (aurrerago, helduentzako ordutegiak finkatuko ditugu).

B. Zein kalitate behar dira karatea egiteko?

M. H. Hasiera batean, edozeinek egin dezake. Ondoren, batzuek karate gerriko beltza 3-4 DANA lortuko dute; beste batzuek, ostera, gerriko beltz edo marroia, baina oso kirolari onak izango dira. Azken finean hori da helburua.

B. Giartzuk zer espero du bertako karatekengandik?

M. H. Guztia. Batez ere, kirolari onak izatera heltzea.

KARATEA



ESGRIMA

B. Kirola al da esgrima?

M. H. Boxeoaren edota borrokaren moduan, arma zuriekin egiten diren norgehiagoka da esgrima.

B. Nondik dator?

M. H. Kirol berri samarra dela esan daiteke. Halere, gladiadore erromatarrak izan daitezke kirol honen aitzindariak. Hauek, entrenamendu saio gogorak egin ostean, sasoi puntu onean eta borrokarako prest zeudenean bakarrik irteten ziren plazara.

B. Zeintzuk dira beharrezko kalitateak?

M. H. Mugikortasuna eta bizkortasun mentala nahiz fisikoa (ez badaukazu denborarekin lortuko duzu, horretarako dira eta entrenamenduak).

B. Emakumeek eta gizonezkoek berdin egin dezakete?

M. H. Guztiondako kirola da. Emakumeek, gizonezkoek bezain ondo egin baitezakete esgrima.

B. Garestia al da esgrima egitea?

M. H. Ez. Maskara eta ezpata beharrezkoak dira hasieratik. Gero, kirolaria kirol honekin identifikatzen hasten denean, eskuzorroa, txaketila eta prakak erosi beharko ditu. Dena dela, hasierako klaseetarako materiala gimnasioak emango dio.

GIARTZU

Boni Laskurain 3. Telefonoa: 943 76 35 71.



Eskuz binakako txapelketa abian

Joan zen zapatuan hasi zen herriko eskuz binakako pilota txapelketa. Hamasei bikotek hartuko dute parte txapelketan eta abendura arte jokatuko dute. Ondoren finalerdiak eta finalak izango dira.

Hirugarren urtez antolatzen den eskuz binakako pilota txapelketan bi mailatan arituko dira herriko pilotariak. Aurreko edizioetan asko nabaritzen omen zen jokalarien arteko aldea, eta aurten bi talde egin dituzte Olalde pilota elkartekoek. Antolatzaileek adierazi digutenez, "txapelketa orekatuagoa izatea" espero da.

Bi maila haueko lehenengo lau bikoteak finalerdietarako sailkatuko dira eta partidu guztiak 18 tantura jokatuko dira. Azken uneko aldaketak direla eta azaroaren 28ko partidua abenduaren 5ean jokatu da eta finalerdiak, berriaz, abenduaren 12an.

1. MAILAN

- Xabier Barkero - Iker Irizar
- Aitor Aranguren - Xabier Azkarate
- Jose Ramon Jauregi - Jose Mari Mendizabal
- Juan Simon Aristi - Luis Larrea
- Jose Mari Galeano - Joxue Madariaga
- Gorka Manso - Igor Larrea
- Eneko Lizarralde - Andoitz Aranburu
- Aitor Etxeberriarteun - Felix Agirre

2. MAILAN

- Ion Aranguren - Andoni Azkargorta
- Aitzol Jauregi - Xabier San Sebastian
- Gorka Azkarate - Oskar anaiak
- Iker Larrea - Aitor Larrea
- Iñaki Arbulu - Juan Jose Etxezarreta
- Julian Garitano - Juan Tomas Garitano
- Basili Ormazabal - Jose Mari Iturbe
- Jose Manuel Aranburu - Bittor Arbulu



Haritz Berraondorekin Mexikotik

Zer moduzko giroa dago?

Pilotaleku bat baino gehiago direnez, ez da publiko asko egoten.

Hotelean ondo?

Janaria ez da oso ona. Merkatua ere ikustekoa da: arrainak pilak eginda, haragia kamioietan txintziliz.

Gauean ateratzen zarete?

Ez da oso gomendagarria izaten. Maria-txiak entzuten egon gara Garibaldi inguruan. 40 pesoren trukean zuretako kantatzen dute. Alde rosa esaten dioten zona oraindik ez dugu ikusi, baina han giro ona dagoela esan digute.

Pilotalekua ikusi duzue?

Eguakitzean entrenatu ginen lehenengoz egunean bukatu zituzten eta obrak. 2.300 m-ak igartzen dira: bi karrerarekin, nekatuta. Aklimatatzen gaude.

Zein da aurkaririk gogorrena?

Frantsesak eta mexikarrak.



"Egingo dugu" kanpaina Antzuolan

Hiru milioi eta erdi PTA behar dira Antzuolan Egin ordezkatzeko duen egunkaria eratzeko. Horrela azaldu zuen Martin Garitano Euskadi Informacion egunkariko zuzendariak joan den eguaztenean Udaletxeko Pleno aretoan eman zuen hitzaldian. Horretarako herrian talde bat elkartuko da astelehenero, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Udaletxeko Pleno aretoan. 3,5 milioiak egunkari berria eratzeko behar diren 1.000 milioi kanpainaren barruan sartuko lirarteke.



Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12



Juan Cruz



Orain, obrak direla eta,
Kalebarren 16an gaude,
ANTZUOLAn.

Idolazen eskutik euskarazko filmeak

Txotx, Laugarren galeriatik eta Bernar zinean

Hiru filme labur hauek emango dira azaroaren 6an, eguakitza, zinean. Hiru filme laburrak euskaraz dira, 1997an eta 98an egindakoak. "Laugarren galeriatik" eta "Bernar" Jon Andueza mondrogoetarrek zuzendutako filme laburrak dira. "Txotx", berriz, Asier Altuna bergarrak eta Telmo Esnal zumarragarrek zuzendu dute.

Idolazek, Udalaren eta Gaztetxearen laguntzarekin, euskarazko filme laburren emanaldia antolatu du. Euskaraz egiten den zinearen eskasia ikusita, Idolazek egoki ikusi du hiru filme labur hauek herrian eskaintzea, euskaraz ere zine ona egiten dela erakusteko. Emanaldiak 55 minutu irauten du, dena den, gauza motzak ere onak direla erakutsi dute hiru lanen egileek. Hirurek hainbat sari eskuratu dituzte bai Euskal Herrian bai hemendik kanpo. "Laugarren Galeriatik" esaterako, Barakaldoko, Lekeitioko, Biasteriko eta Errenteriako Zine eta Bideo lehiaketetan sariak jasotako filme laburra dugu. Filme labur honetan jatorri ezberdineko bi pre-soen istorioa kontatzen da.

"Txotx" filmeak, izenak dioen bezala, sagardotegia du abiapuntu, baina herentzia arazoak direla eta gizaki okela bihurtuko da protagonista nagusi. Istorio zirrargarria da benetan eta horrek Donostiako Beldurrezko Zine Lehiaketan pelikula onenaren saria eskuratzea ekarri zien bi zuzendari.

Horrez gain, Bilboko Nazioarteko Filme Laburren Lehiaketan euskal peli-

kularik onenaren saria eskuratu zuen. Eta Iruneko eta Aguilar de Campooko Zine eta Bideo lehiaketetan ere pelikularik onenaren saria eskuratu zuen. Malagan, bestalde, bigarren gelditu zen eta Bidasoako lehiaketan 3. saria eskuratu zuen.

Azkenik, Jon Anduezaren azken lanean, Goenkale telesailen horren eza-guna den Miren Gojenolak parte hartzen du, Gorka Zufiaurre eta Patxi Ugalderekin ondoan. "Bernar" filme laburrean haurdun dagoen argazkilaria baten eta Down sindromea duen mutil baten arteko harremana kontatzen da. Jonek lan honekin Elcheko Nazioarteko Filme Laburren Lehiaketan pelikularik onenaren saria eskuratu zuen orain dela gutxi.

Emanaldi gomendagarriak

Ohartuko zinetenez, hiru filme laburrak erabat gomendagarriak dira duda-

rik gabe. Euskaraz egindako hiru lanak azaroaren 6an, eguakitza, eskainiko dira zine aretoan. Emanaldia arratsaldeko 19:30etan hasiko da eta bertan izango dira hiru lanen zuzendariak, euren esperientziak kontatu eta ikusleek egin nahi dituzten galderak erantzuteko prest. Euren diotenez "ez dugu filme laburren emanaldi soila proposatzen. Gure asmoa bertara hurbildutako ikusleekin euskal zinemagintzari buruzko tertulia egitea izango da".

Emanaldia 300 PTA kostako da.



Bernar da hiru filmeen arteko berriena.

■ ■ ■
 "Gure asmoa ikusleekin euskal zinemagintzari buruzko tertulia egitea da"
 ■ ■ ■

zabalo
 IGELTSEROTZA
 Jose Luis Zabalo
 Birgaitzeak • Fatxadak
 Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
 Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

LARREA
TABERNA
 Kalebarren 17
 ANTZUOLA

igok eta Txomin
 Pintura orokorrean.
 Paper, tela, binilo, kortxo... estalduak.
 Gotelesa, iztukuak eta
 bestelako imitazioak.
 ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

GAILUR
 taberna eta
 gozotegia
 Buztinzuri 13 ANTZUOLA
 Tf. 943 78 70 32

Argizaiolak: emendatutako ohitura

Gaur egun apaingarri gisa erabiltzen dira bakarrik

Hildakoak elizetan hilobiratzen ziren garaian ohizkoa zen argizaiolen erabilera, hildakoekiko lotura mantendu nahian. Gaur egun galdutako erritua da (Amezketan Domusantu egunean egiten da oraindik) eta argizaiolak apaingarri gisa erabiltzen dira. Bergaran ere garai batean zuten tokia galdu dute argizaiolek.

Argizaiola (argizari-ohola), hari itxurako argizaria biltzeko erabiltzen den ohola da. Jatorriz familiako gurtzarekin zerikusia dauka. Elizak hildakoak tenplo kristaueetan hilobiratzeko agindu zuen arte hildakoak baserrian bertan edo ondoko baratzean lurperatzen ziren. XIII. mendean geroztik, berriz, baserri bakoitzari hilobi bana egokitzen zaizkio herriko edo auzoko elizan. Beraz, hildakoa etxeko sukaldetik urruti dagoenez, etxeko sua (konnotazio sakratuak zituena) eraman behar izaten zen hilobiraino hildakoak berotzeko eta beraien arimak laguntzeko asmoz. Horretarako argizaria garrantzi handikoa zen. Etxeko norbait hiltzen zenean erleei heriotzaren berri ematen zitzaientzen, ohi baino argizari gehiago egin zezaten eta erleak berak ez hiltzeko hain zuzen (abisatu ezean hil egingo zirela oso zabaldua zegoen orduan). Horretarako hainbat herritan erlauntzatik zapi beltza zintzilikatzen zen eta bazen errepikatzen zen esaera bat ere: "erletxoak, erletxoak, egizue argizaria; nagusia hil da eta elizan argia behar da". Bizidunen eta hildakoen arteko mezulariak zirenez, erleak sakratuak ziren garai hartan.

Sepulturak elizan

Hildakoak ohoratzeko kandelak bezeziak ziren, hari itxurakoak eta boro-bilean bilduta. XVI. mendean inguruan kandela hauek eramateko argizaiola sortu zen. Argizaiolek giza itxura zeukaten (burua, besoak eta hankak is-



ARGAZKIA: MIKEL OLABARRIA

LARRAÑAGAREN BILDUMA

Bittoriano Larrañagak argizaiolen bilduma aipagarria dauka. Dagoeneko 39 argizaiola bildu ditu Bittorianok, azkena joan zen zapatuan erosi zuelarik. Zaharrena XVII. mendekoa da eta XX. mendean eginiko piezak ere baditu. Peña Santiagoren La argizaiola vasca liburua- ren irakurketak animatuta, gaztetan ekin zion argizaiolak kolezionatzeari. Lortutako pieza gehienak (36) gipuzkoarrak dira eta beste hirurak Bizkaia aldekoak. Bittorianok ezagutu du elizetan argizaiolen erabilera, "San Pedron, Elosun eta Uzarragan ikusi ditut argizaiolak piztuta, Domusantu egunean adibidez, serorak sepulturak zaintzeko ardura zeukaten eta beraiek jartzen zituzten argizaiolak normalean. Argizaria etxeko gotegietan egiten zen orduan. Askotan hildakoendako opariak (olatia, ogia) ere jartzen ziren argizaiolen ondoan eta dirua, *responsoa* egiteko". Oñatin esaten zen umeendako kantu bat ere gogora ekarri digu Larrañagak: *Kukurruku, ze dakatzu? olatia. Nuendako / abadiandako / abadia zetako? / mezia emateko / mezia zetako? zerua irabazteko / eta zerua zetako? goxua jateko*. Larrañagaren arabera, "gaur egun Angiozarren oraindik ere kandeleroak erabiltzen jarraitzen dute. Hilobi gainean



jarri beharrean eliza aurrekaldean jartzen dituzte, zapi zuri baten gainean eta lazotxo batekin. Tradizio handia dago Angiozarren oraindik. Bestela, hildakoak kanposantutan lurperatzen hastean, argizaiolen orde, hildakoak laguntzeko jendea farolak eramaten hasi zen." Ez da baxterre erreza argizaiolak topatzea gaur; "bildumazaleok eta etnografoak ibiltzen gara argizaiolen atzetik, jende arruntak ez du ordaintzen argizaiolengatik eskatzen dena. Bergaran Miren Goñik ere nahiko pieza batu ditu. Donostiako Casa Vergara tabernako gizonak (bere andrea Antzuolako Bereterio baserrikoa) ere bilduma oso ona zeukan". Etorkizunean bildutako piezak eta dituen zeramikak (200dik gora) museo batean ikustea gustatuko litzaioke Bittorianori. **B**

ladatu nahian) eta egiteko haritz, in-txaurren edota gereziendo-zura erabiltzen zen. Emakumeak ziren, elizako hilobi gainean, argizaiola pizteko ardura zutenak. Hildakoaren familian jaiotza, ezkontza edota heriotzaren bat gertatzen zen guztietan pizteko ohitura zegoen. Garai batean Euskal Herri guztian erabiltzen bazen ere, gaur egun

Amezketan bakarrik ezagutzen da argizaiolen erabilera. Higiene arazoak zirela eta, 1787. urtean Carlos III.ak elizetako hilobiratzeak debekatu eta hilerriak herrietatik kanpo eraikitzeke agindu zuen. Erabaki horrek argizaiolen gain-behera ekarri zuen. Apaingarri hutsak izatera igaro dira argizaiolak gaur egun.



Mikel Olabarria bergararrari betida-

nik interesatu zaio hilerrien mundua eta, Eusko Ikaskuntzako Jakitez programaren barruan, "Argizaiolak. Ofrendas de luz-fuego en formulas funerarias" izenburuko lana egin berri du, Antton Erkoreka EHUKo irakaslearen zuzendaritzapean. Luis Pedro Peña Santiagoren "La argizaiola vasca" lanean ez ziren jasotzen Santa Marinako argizaiolak eta, hain zuzen ere, galtzeko dagoen memoria hori berreskuratu eta gure ondarearen berri ematea izan da Olabarriaren lanaren ardatza. Aipatutako lanean, besteak beste, San Blas eta San Anton auzoetako baserrietan egindako inkesta, Santa Marinako argizaiolak, Antzuolako parrokiakoak eta Bittorianoko Larrañagak duen bilduma katalogatu ditu. San Blasen eta San Antonen suaren euskarri moduan erabiltzen ziren zutargien, atxeruen edota ziriolen berri jaso bazuen ere, ez zuen argizaiolik topatu. Santa Marinaran egondako hainbat apaizekin hitzegingin ondoren, parrokian argizaiolak gordetzeko erabiltzen zen kutxa lokalizatu zuen, tapa iltzez josita zegoelarik. Kutxa zabalduta ondoren, barruan 49 argizaiola zeudela konprobatu zuten. Aurkitutako argizaiolak era askotakoak dira: kaxa estilokoak, kaxa hankadunak, taula simpleak eta taula-hankadunak. Garai batean kirtendunak-tailatuak, kirtendunak-hankadunak, ziriolak eta atxeruek ere erabili ziren Santa Marinaran.

Santa Marinaran

Hala ere, ezin izan da argizaiolik identifikatu. Argizaiolak zenbatuta badaude ere, ez da gordetzen jarleku edo hilobien kokapena (bakoitzak zenbaki bat zeukan baita). Olabarriaren arabera, "garai batean egurrezko tapadun 216 hilobi eta harrizko tapadun beste lau ziren Santa Marinaran eta baserri bakoitzak zuen kokalekua jakingo bage-nu argizaiolak zein tokitan zeuden jakingo genuke. Larrarte baserrikoa da identifikatu dugun bakarra. Era berean, 202 zenbakiko sepulturakoa Turbiña edo Beosein-Goikoa baserrikoa dela

Emakumeak ziren, elizako hilobi gainean, argizaiola pizten zutenak. Garai batean Euskal Herri osoan erabiltzen bazen ere, gaur egun Amezketan bakarrik ezagutzen da



ARGAZKIAK: MIKEL OLABARRIA

Goian, ezkerrean, Amezketan erabiltzen den argizaioletako bat. Behean, Santa Marinaran aurkitutako bat, 24. hilobiari zegokiena. Eskuinean, Larrarte baserrikoa. Behean, Mikel Olabarria.

uste dugu. Normalean etxe bakoitzak sepultura bat aginduta zeukan baina bi baserri (auzo ezberdinetakoak gainera) sepultura berdinean egotea gertatzen zen Santa Marinaran. Beraz oso nekeza da argizaiolen jatorria ezagutzea. Ziur asko, 300dik gora argizaiola izango ziren Santa Marinaran. Gaur mantentzen direnei sitsaren kontrako tratamendua aplikatzea komeniko litzateke, batzuk nahiko ikututa daude eta". Argizaiola asko galdu egin dira eta beste asko etxeetan apaingarri gisa erabiltzen dira, arbasoen oroigarri modura. Bilboko Museo Etnografikora edota Mexikoko Museo Antropologikora heldu diren Bergarako piezak ere badira. Olabarriaren ustetan bere garaian jendeak ez zituenak batu erre egin ziren argizaiolen

erabilera baztertu zenean. Beste asko bildumazaleen esku dira.

Berak argitzen digunez, "orain dela 35 bat urte desagertutako errittoa da argizaiolena, gaur egun Amezketan bakarrik ezagutzen da. Esan behar da ez dela errittoa katolikoa, sepulturetan sua ematea lehendik datorrelako. Elizak errittoa hori bereganatu zuen, purgato-



rioaren ideiarekin, hildakoen alde zer-bait egin zezakeela zabaldu zenean. Ordura arte zerua eta infernua bakarrik bereizten ziren. Argizaiolekin hildakoe-kiko lotura mantendu nahi zen. Mezetara etortzen zirenean etxeokoe pizten zituzten eta dirua ere jartzen zuten apaizak *responsoa* egiteko. Mende honetan berriz baztertzen hasi ziren argizaiolak, espazioa hobeto aprobetxatzeko elizetan bankuak jarri zirelako eta suarekin eliza erretzeko arriskua ere bazegoela ikusten zelako. Gainera sepultura etxeokoe zati bat moduan ikusten zuten jendeak kasu askotan eta ez zegoen argi norik agintzen zuten terrenu horretan. Horrela baztertzen hasi ziren eta orain, pena bada ere, jende asko ez da akordatu ere egiten argizaiolekin". B

"Orain dela 35 bat urte desagertutako errittoa da argizaiolena. Elizak bereganatutako errittoa da, hilobietan sua ematea lehendik datorrelako" MIKEL OLABARRIA



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN KANPOAN

09:30: Agirrebeña Jatetxea-Amilotx	Xurruapak
10:30: Xurruapak-Bayer	Buya
11:30: Buya-Uve Bikoitza	Urrutxurtu
12:30: Urrutxurtu-La Juve	U. Bikoitza
16:00: Pinturas Bergara-HHH	Arbe K.
17:00: Arbe Kirolak-Agiñaspi	Irubide
18:00: Irubide Jatetxea-Usoa	FAC
19:00: FAC-Ion Autoak	Usoa

DOMEKAN KANPOAN

09:30: SLP-Txipiron	Patxaran T.
10:30: Patxaran Team-Ari Ari	Sirimiri Eri
11:30: Sirimiri Eri-Igandekoak	Patatus
12:30: Patatus-Guadalest	Igandekoak
16:00: Tom Cat Argandolas-Moskis	Amozkibar
17:00: Amozkibar-Ufala	Komando P.
18:00: Komando Piperrak-Artusamak	Ezinleike
19:00: Ezinleike-Matxakategi	Artusamak

argi!

Zigorak datorren astean erabakiko dira

Zuzendaritza Batzordeak zera jakinarazi nahi du: laugarren jardunaldian, jokalaria batzuri ezarritako zigorrak, datorren astean erabakiko direla. Zigorrak orain arteko arautegiaren arabera ezarriko dira eta, gogoratu, arautegi berria ezagutzeko eskatzen dela arbitraia behar bezala egin ahal izateko.

jokoz kanpo



Gorka Marzana
PAGOMENDI

G. Nola joan dira orain arteko partiduak?
E. Espero baino hobeto. Bi irabazi eta hiru berdindu ditugu.
G. Nola zoazte sailkapenean?
E. Lehenengo mailako aurrealdean.
G. Gustora zaude jokatzen duzun tokian?
E. Atzean jokatzen dut baina nahiago nuke aurrelari moduan aritzea. Mugimendu eta dibertimendu handiago dago.
G. Zer dela eta jokatzen duzu atzean?
E. Talde osoak hartutako erabakia izan zen. Jokalari bakoitzak non jokatu zezakeen erabaki genuen eta neri atzean tokatu zitzaidan.
G. Jokalari berririk?
E. Ez. Lesiorik ez bada, guztiok izaten gara partiduetan.
G. Zer da jokatzerik gehien eta gutxien atsegin duzuna?
E. Gutxien, igande goizetan ohetik jaikitzea eta gehien, partidu interesgarriak jokatzea.
G. Futbola edo futbitoa nahiago.
E. Futbola beharbada. Dena dela, bakoitzak bere abantailak dauzka.

gora eta behera



Jardunaldiko golegileak

Laugarren jardunaldian hiru jokalaria izan ziren launa gol sartu zituztenak. FAC taldeko Aitor Soro eta Asier Sebal eta Sirimiri Eri taldeko Joseba Larrañaga. Komando Piperrak taldeko Jon Unamuno eta Bayer taldeko Peli Iturrikastillok, berriro, hiruna gol sartzea lortu zuten.



Iskanbila jokalarien artean

Amozkibar eta Agiñaspi taldeko jokalaria batzuk, joko zikinean jarduteagatik eta, ondoren, borrokan aritzeagatik kanporatuak izan ziren 4. jardunaldian. Errotagain taldeko jokalaria bat ere kanporatua izan zen, aurkari bati ostikoa emateagatik. Partidu honetan, iskanbila sortu zen epaile eta jokalarien artean.

emaitzak

Komando Piperrak-Ion Autoak	7-1
Bayer-Ezinleike	6-5
Bildurbarek Opel/Lam-Pagomendi	3-3
Shaktale-Bar Canalejas	3-4
Txipiron-FAC	2-14
Amilotx-Sirimiri Eri	0-6
Ion Autoak-La Juve	3-3
Ari Ari-Xurruapak	0-4
Errotagain-Azpeitxi Jatetxea	2-3
Mongatxurak-Ortzi	3-3
Agiñaspi-Amozkibar	2-0
Ufala-Guadalest	2-4

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	7	3
2. Errotagain	7	4
3. Bar Canalejas	6	3
4. Azpeitxi Jatetxea	6	4
5. Pagomendi	5	3
6. Mongatxurak	4	3
7. Bildurbarek Opel/Lam	4	4
8. Ortzi	4	4
9. Jauja OH Zerezos	3	3
10. Shaktale	3	4

A multzoa

	P	J
1. FAC	12	4
2. Artusamak	9	3
3. Komando Piperrak	9	4
4. Txipiron	6	4
5. Urrutxurtu	6	4
6. Usoa	6	4
7. Etengabe	4	4
8. Irubide Jatetxea	3	3
9. La Juve	2	3
10. Ion Autoak	1	4
11. SLP	0	3

B multzoa

	P	J
1. Tom Cat Argandolas	10	4
2. Guadalest	10	4
3. Arbe Kirolak	9	4
4. Moskis	9	4
5. HHH	7	4
6. Agiñaspi	7	4
7. Ube Bikoitza	6	4
8. Buya	4	4
9. Ufala	3	4
10. Pinturas Bergara	2	4
11. Patatus	1	4
12. Amozkibar	0	4

C multzoa

	P	J
1. Bayer	12	4
2. Xurruapak	12	4
3. Sirimiri Eri	10	4
4. Patxaran Team	9	4
5. Ezinleike	7	4
6. Ari Ari	6	4
7. Molko)lotov	6	4
8. Agirrebeña Jatetxea	4	4
9. Matxakategi	3	4
10. Igandekoak	1	4
11. Amilotx	0	4
12. Zubixaurre Punk	0	4



Iazko lan bikainaren jarraipena

Joan zen denboraldian bezala, lan bikaina ari dira egiten Gorka Zelaiak entrenatzen dituen mutilak. Joan zen astean Donostian jokatu zuten Munibe taldearen kontra eta 6-1eko emaitza lortuta etorri ziren etxera. Hasieratik partidua dominatzen hasi ziren. Lehendabiziko zatian gol bakarria sartu zuten, aukera handiak galduz baina bigarren zatia aprobeztatu zuten gainontzeko 5 golak lortzeko.

Partiduko golegile nagusia Iñaki Mujika izan zen hiru gol sartu zituelarik. Munibe taldekoek, partidua amaitzeko hiru minutu falta zirela sartu zuten euren aldeko gol bakarria. Talde paregabea dute aurten jubentzeko. Saikapean goiko postuetan daude.



Sailkatzeko, domekan irabazi behar

Lehendabiziko partidua jokatu eta irabazi egin zuten eskubaloiko kadete mutilek. 12-15 egin zuten domekan Arrasaten. Dena dela, azken minutuetaraino itxaron behar izan zuten garaipea ziurtatzeko. Hasierako minutuak Arrasateren aldekoak izan ziren; bergararrek, ez zuten zorterik izan.

Bigarren zatian, berriz, erreakzionatu eta markagailuan aurreratzea lortu zuten. Jon Lasa atezainak lan polita egin zuen eta jokalarien artean, Jonathan Gimbert izan zen nabarmendu zenez tariko bat. Asteburuan, Almenen kontra jokatuko dute eta partidua aurrera ateratzen badute, sailkatzea lortuko dute. Edu Iñarra, Gaizka Osa eta Ibai Goenaga dira taldearen arduradunak.



A ze nolako jipoia zumaiarrei!

Angel Ortiz eta David Bouzasek zuzentzen duten taldeak, izugarriko jipoia eman zien Zumaiakoei joan zen astean 82-11 irabaziz. Lehen zatian 29 puntutako aldea lortu zuten eta orduetik aurrera, partidua Bergarakoen eskuetan gelditu zen. Zumaiakoentzat lehendabiziko denboraldia izan dela eta, horrek Bergarakoei abantaila eman ziela kontutan izan behar da.

Partiduan zehar nabarmendu ziren jokalaria, Andoni Gonzalez eta Mikel Larrañaga izan ziren. Asteburu honetako partidua ez da horren erreza izango, lehen postuko Askatuak-en kontra neurtu beharko baitira.

Kadete mailakoentzat 2. partidua izan zen eta une honetan 5. postuan daude.

IÑAKI ANDUEZA / Antxintxikalaria "Behobia-Txiki prestaketa saio bat da"

20 urterekin hasi zen antxintxika egiten eta, dagoneko, Behobia-Donostia lasterketa guztietan izan da. Duela hiru urte Behobia Txiki antolatuta zutenetikoa izan zen. Korrika egiteaz gain, mendizale amorratua eta skizalea da.

G. Zer dela eta antolatzen da Behobia Txiki?

E. Behobia-Donostiara joan baino lehen entrenamendu gisa. Helburua ez da nork irabaziko duen ez baitago irabazlerik, ezta saririk ere. Batez ere, korrika egitea gustoko dugunak biltzea eta Donostiarako gertatzeko asmoa da nagusi. Lasterketa lasaia da baina giroan sartu beharra dago eta psikikoki

gertu egon behar da. Behobia-Donostia proba gogorra da eta errespetua hartu behar zaio joan aurretik.

G. Korrika egiteko bide egokiak daude Bergaran?

E. Askotan aipatu dugu eta ez gara aspertuko errepikatzen. Trenbide zaharrean jarduten dugu korrikan toki polita baita, baina oso egoera kaskarrean dago. Neguan ez da argirik izaten eta zulo handiak daude. Bidegorri bat egiteak ez du lan handia ematen eta hori Udalaren zeregina dela uste dugu.


G. Behobia Txiki eta gero bazkaria daukazu.

E. Bai. Lasterketa lasaia denez, ondoren bazkaria egiten dugu. Horregatik, jendea lasterketan parte hartzea animatuko nuke.

Gero eta jende gehiago izatea nahi dugu eta, ondorioz, izaera herrikoa lortzea.

G. Korrikalari gustokorik?

E. Euskal Herrian korrikalari onak ditugu. Martin Fiz, Diego Garcia eta Antzuolako Antonio Merino baita. Joan zen urtean bigarren gelditu zen Donostian.



FUTBOLA

Bergara-Soraluze

Lehen mailako jubentilak
Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Hamaikak Bat

Neskak
Zapatua. 17:15. Ipintza

Bergara-Lagun Onak

Infantil mutilak
Domeka. 11:30. Ipintza

PILOTA

Kafe Baque Txapelketa

Kadete maila.

Herran-Etxaniz

Ormaetxea-Unanue

Lopez-Agirrebeña

Alberdi-Orgaz

Martitzena.

19:00etatik aurrera.

Udal Pilotalekua

SASKIBALOA

Bolsos Bergara-Leioa

Seniorrak

Domeka. 17:30. Kiroldegia

ESKUBALOA

Bergara-Almen

Kadete mutilak

Domeka. 09:30. Kiroldegia

Bergara-Urola

Jubentil mutilak

Domeka. 10:45. Kiroldegia

FUTBITOA

Lagunak-Ataun KE

Jubentil mutilak

Domeka. 12:00. Kiroldegia

Bergarako Lagunak-

Idiazabal Garabi

Neskak

Domeka. 13:00. Kiroldegia

Bihar, zapatua, Step maratoi herrikoia polikiroldegian

Euskal Herrian antolatzen den era honetako lehena

Labegarrietako polikiroldegia, stepzaleen topagune bihurtuko da zapatuan 17:00etatik 19:30ak arte. Hiru ordu iraungo dituen saioak, zazpi monitore izango ditu zuzendari lanetan. Giartzu gimnasioko antolatzaileen hitzetan, step maratoi bat egiten den lehendabiziko aldia da Euskal Herrian.

Bergaran, esaterako, eskaera asko handitu da eta ugari dira aerobika irakasten ari diren monitorea. Gorputzeko atal ezberdinak lantzeaz gain, aerobikaren baitan mota ezberdinak daude eta hauetariko bat stepa da. Marisabelek, Giartzuko arduradunak, adierazi digunez, "stepa nahiko berria dela esan daiteke, duela bi urte sortu baitzen. Dena dela, aurrerantzean garapen handiagoa izatera iritsiko da. Erabateko kirola da eta jendeak oso gustokotzat dauka. Lasaitasun handia lortzen da eta tentsioak baztertzen laguntzen du".

Bergara aintzindari

Horrela izanik, Marisabelek Bergarako Step Maratoi Herrikoia antolatzeari ekin zion. "Aerobika gustoko izan arren, stepak etorkizun handiagoa duela uste dut. Gauza asko egiteko aukera zabaltzen du. Uztailean, Calahorra aldean egiteko asmotan ibili zirela entzun nuen baina ezin dut ziurtatu. Antolatzeko ga-



Giartzutik monitorea lanetan arituko direnak: Ana, Gema eta Marisabel.

raian denbora eskatzen du baina merezi duela uste dut eta honek guztiak jarraipena izango duelakoan nago. Horrenbeste jenderentzat stepak lortzea zaila izan da baina zorionez inguruko gimnasio guztiek lagundu digute". Bergarako Udalaren eta hainbat enpresaren laguntza ere izan dute. "Udala kiroldegiaz, argiaz eta musikaz arduratu da. Bestalde, kamisetak, ura eta horrelakoak babestu dituzten enpresa eta dendek lagundu digute. ETB ere bertan izango da eta irudiak grabatuko ditu gero telebistaz emateko".

Adin mugarik gabe

Aerobik maratokia edozein adinetako pertsoneri

zuzenduta dago eta ez soilik aerobikaren jarduten dutenei. Antolatzaileek, adin guztietako jendea biltzeko asmoz egin dute. "Zazpi monitorea daude eta bakoitzak koreografia bat jarraituko du". Monitorea lanetan, Iñaki Arana aerobik irakaslea (Iruñea), David Pozo, aerobik monitorea irakaslea (Alikante), Jon Aranberri, monitorea (Arrasate),

Step maratoi honen ondoren, aurrerantzean ere, beste batzuk izango direla uste dute antolatzaileek

Mari Jose Corbella, Espainiako Aerobik Federazioko partaidea (Donostia) eta Giartzuko Marisabel, Gema eta Ana arituko dira.

"Koreografia oso sinplea eta erreza izango da. Aerobika edo stepa pratikatzen duen pertsona batek iraupen handiagoa izango du baina ez dago bukaeraraino iritsi beharrik. Hasiara lasaia izango da eta koreografia eta erritmoa arintzen joango den arren, sinplea izaten jarraituko du". Monitorea eskaintako 20 minutuko saioen artean ura edan eta atsedena txiki bat hartzeko aukera ere izango da. Partaide guztiak oparia jasotzeaz gain, Bergarako denda batzuk eskaintako sarien zozketan parte hartzeko aukera izango dute. B

ESKOLA KIROLA MARTXAN

Dagoeneko herriko gaztetxoak hasi dira eskola kirolean. Joan zen zapatuan alebin mailakoak futboleant aritu ziren eta benjaminak, berriz, badminton eta txirrindularitza. Zapatu honetan:

MARIAREN LAGUNDIA

3 eta 4. mailakoak:

09:45: Txirrindularitza.
Irteera Aranzadi
Ikastolako jolastokitik.

ARANZADI IKASTOLA

4. mailakoak:

10:00: Badminton
11:00: Txirrindularitza

3. mailakoak:

11:00: Badminton
12:15: Txirrindularitza

Bizikletak eramatea
beharrezkoa da.

FUTBOLA (IPINTZAN)

Alebin mutilak

09:30: M Lagundia B-
Aranzadi 13.

09:30: Aranzadi 12-
Antzuola.

10:30: Elgeta-
Aranzadi 11.

10:30: San Martin-
Aranzadi 8.

11:15: Aranzadi 9-
M Lagundia A.

Alebin neskek

11:15: M Lagundia-
San Martin.

12:00: Aranzadi 14-
Antzuola.

12:00: Elgeta-
Aranzadi 13.



Mikel Arakistain, Basaurin eskuratutako domina eta koparekin.

Mikel Arakistain Euskadiko Karate Txapelketan garaile

Mikel Arakistain beragararrak, Gipuzkoako Selekzioarekin, Basaurin jokatutako Euskadiko Koparen zazpigarren jardunaldiko karate txapelketa irabazi zuen. Mikelek urte bat daroma junior mailako selekzioan. Joan zen zapatuan, Biz-

kaia eta Arabako partaideen kontra aritu zen eta bi kumiteak (borrokak) irabazi zituen. Joxean Iñarra, Gipuzkoako Federazioan dabilen entrenatzailearen aginduetara dago eta entrenatzaileak esan digunez, etorkizun bikaina dauka Mikelek.

Mendi Bizikleta ibilaldia bertan behera utzi da

Hauteskundeak direla eta, Lokatza Ziklismo Eskolak domekarako iragarrita zuen Font-siren orotimenezko Mendi bizikleta ibilaldia bertan behera uztea erabaki du. Horrela, Lokatzak aurtengo egutegiari amaiera ematen dio.

Bestalde, datorren urtean parte hartu edo laguntzeko prest daudenei gonbitea luzatu die, 20:00etatik aurrera Plazan duen lokalera azalitzeko eskatuz.

Behobia Txiki zapatuan


Behobia Txiki lasterketa bihar jokatuko da. Irteera 10:30etan emango zaio eta hamabost kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak: Igerilekuetatik Soraluzeraino joan eta itzuli. Ondoren, bazkaria antolatu da Iraho jatetxean. Urtero partaide kopurua handituz doa. Duela bi urte 53 korrikalari bildu ziren eta iaz, ostera, 65. Aurtengo jendea animatzea espero dute antolatzaileek.

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



Matxiategi
Elektragarritza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Etxea salgai Osintxun.
Erdi-amueblatua.
943 76 49 74.

Pisua salgai San Loren-
tzon. 943 76 31 16.

Pisua salgai Martokan.
943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Aranerre-
kan. 943 76 52 17.

Pisua salgai A. Fleming
kalean. 94 658 32 05

Erosi

Pisua erosiko genuke
Bergaran. 943 76 57 87.

Errentan hartzeko

Berrizteko dagoen ba-
serri bat hartuko genu-
ke. 943 79 48 09 (Itziar).

Etxe konpartituak

Neska behar da Donos-
tian pisua osatzeko.
943 71 49 46.

Bergaran pisua osatze-
ko lagun bat behar da.
943 76 47 55.

Bi pertsona behar dira

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

edo baxua behar dugu.
945 14 17 84 (17:30-20).

Errentan emateko

100 m²ko lokala aloka-
tzen da Kruz Gallaste-
gin. 943 76 11 89.

Taberna-jatetxea alo-
kairuan. 943 76 41 71
/76 37 80 (gauez).

4. LANA

Eskaintzak

Goizez, etxeko lanak
egin edo haurrak zaindu-
ko nitzuke. 943 76 46 07.

Atarrien edo etxeen gar-
biketara. 919 52 98 04.

Etxeko lanak orduka.
943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan haurrak
zainduko nitzuke. Espe-
rientzia. 943 76 03 76.

Edadetuak zaindu eta
etxeko lanak egingo ni-
tuzke. 943 76 09 33.

Helduak zaindu edo
etxeko lanak (astebuka-
eran). 943 76 50 46.

Lanak ordenadorez pa-
satzen ditut (testuak
zein grafikoak).
943 76 61 24.

Bilbon (San Inazio)
pisua osatzeko.
943 77 13 77.

Donostian (Amara) bi
lagun behar ditugu pi-
sua konpartitzeko.
943 79 27 42.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea Torrekuan.
2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Maste-
rrekan. 943 76 27 71.

Garajea salgai Burdiña-
ten. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Maste-
rrekan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain.
943 76 17 84.

Garajea saldu edo alo-
katzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lo-
rentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi.
943 76 27 61.

Errentan emateko

Garajea alokairuan
Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Po-
ligonoan. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan
hartuko nuke Zubietan.
943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke.
943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu


Lokala salgai A. Fleming-
gen. 943 76 00 84/ 35 83.


Erosi

5.000 m²ko lursaila ero-
siko nuke Bergara ingu-
ruan. 943 76 70 24.

40 m² inguruko biltegi

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Telefona: 943 76 21 21
ANGIOZAR

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA
ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK
Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78


Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69


gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

Tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 37 56.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 78 70 32 (Sara).

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona edadetu bat zaintzeko. 943 76 47 76.

Neska behar da, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943 76 70 33.

Astebarruan, 12:30etatik 14:30etara umea zaintzeko neska behar da. 943 76 38 51.

Emakume bat orduka zaintzeko gizon bat behar da. 943 79 37 68.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak. 943 76 70 40.

Filolojia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 9437647 30.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

1. eta 2. DBH klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu. 943 76 03 83 (Dani).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Renault-9 kotxea (SS-V)

salgai. 943 76 25 31.

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i (SS-AK). Aire egokitua. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai. 1,10x1 m. Poliesterrezko tapa. 943 76 37 87.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1400 (BI-BF). 94 658 24 70 (Nerea).

Ford Sierra kotxea (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta polizia-txakurrak salgai. 943 76 52 21.

Beagle (eta honen gurasoak) eta Tekel txakurkumeak.. 908 87 93 76.

8. DENETARIK

Saldu

Bainurako manpara,

1,55 m. 943 76 64 65.

Motorola telefono mobilak salgai. 8.000 peze-ta. 907 34 46 58.

Kotxerako Pioneer irratikaseta eta edurretarako kateak salgai. 943 76 08 25.

Ohe bat (133x180) salgai. 943 76 11 11.

Flex markako litera bat (35.000 PTA) eta telefonoarendako egurrezko mueblea (10.000) salgai. 943 79 57 64.

Galdu

Koadrodun aterkin pegablea galdu nuen zapatuan Arrano parean. 943 76 32 94.

Aurkitu

Agure baten karnet neurriko argazki zahar bat topatu dugu. Argazkiaren jabeak azokako Mertxe urdaitegira deitu (943 76 54 67).

Bestelakoak

Caritasek adierazten du familia batek 1,5m.ko sukaldaroko armarioa eta sofa bat behar dituela. 943 76 11 98.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INFORMATIKA IRAKASLEA

Donostia. 12676/3

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Deba Garaia. 12707/3

2 GALDARAGILE
Donostia. 12948/4

ILEAPAINTZAILE OFIZIALA
Bilbo. 13580/4

INFORMATIKA LIZENTZIATUA
Gasteiz. 13010/4

ARTE GRAFIKOEN ARDURADUNA
Donostia. 13017/3

ELEKTROMEKANIKAKO MONTATZAILEA
Urola Kosta. 13135/4

KAMIOIEN MEKANIKOKA

Durangaldea. 13193/1

PROZESUEN INJINERUA
Tolosa. 13361/2

OBRA ARDURADUNA
Ezkerraldea. 13414/1

IZURRITEEN KONTROLA APLIKATZEKO PIOIA
bilbo. 13533/2

GARRAIOLARI-GARRAIO AJENTEA
Bilbo. 13546/2

GERIATRIAKO LAGUNTZAILEA
Plentzia-Mungia. 13619/0

SOLDATZAILEA
Donostia. 12949/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Eskulan ikastaroa

Noiz:
urritik maiatzera arte
Non: Kartzela Zaharrea
Ordutegia:
15:30etatik 17:00etara

Prezioa: 3.500 PTA
Jarduneko bazkideek eta 4.000 gainontzekoek
Matrikula epea:
urriaren 15a.

Informazioa:
Jardun elkartearen
943 76 08 19 / 943 76 36 61.



Oraindik plaza batzuk geratzen dira!
Aprobetxatu aukera!

Perucki poloniarren organu emanaldi ederra

San Pedroko Sholtz organuan gustora aritu zen eta gustora ere entzulegoa

Joan zen zapatuan San Pedron kontzertu ederra entzuteko aukera izan genuen. Poloniatik etorritako Roman Perucki organujolea Stoltz organoan aritu zen gustora eta entzuten geundenok ere gustora. Kontzertu hau urtero antolatzen diren (laugarren urtez) organu kontzertuen artean lehenengoa izan zen; hurrengoa azaroaren 28an izango da.

Irigo Alberdi

Peruckik aukeratu zuen programaren ardatz nagusia pisuzko obra bat zen: Charles Marie Widor konpositore eta organujole frantsesaren Bosgarren Organu Sinfonia. Musikari honek idatzi zituen musikaren historia guztiko lehen organu-sinfoniak, denetara hamar sinfonia idatzi zituen organo instrumentu bakarrarentzako. Larunbatean bosgarrena entzun genuen, guztietan fama-tuena.

Poloniar musikoak partitura menperatuta zeukan, bai teknikoki (oso zaila da), bai eta musikalki ere. Organuaren tubu guztiak lanean ipini zituen, barietate tinbriko izugarriak lortuz. Ikusgarria zen hanken mugimendua, pedaletan gora eta behera. Sinfonia honek bost zati edo mugimendu dauzka, oso desberdinak. Oso ezaguna eta gustagarria da bosgarren mugimendua, "Tocata", joteko nekeza da benetan, erritmoa behin eta berriz errepikatzen du eta fortissimo bukatzen du, organoaren erregistro guztiekin. Txalo asko.

Kontzertuaren bigarren zati bezala (atsedenik ez), gaur egungo bi poloniar



Peruckik Udazken Kulturalean iragarri diren organu emanaldietako lehena eskaini zuen zapatuan.

konpositoreren obrak ekarri zizkigun Peruckik. Angustya Bloch-en "Fantasia", eta Sawa-ren "Fuga-Bolero". Bloch-en musika mende honetako korronte musikaletan kokatzen da erabat. Armonia oso aberatsa eta klasikotik desberdina da, beste estetika baten fruitua. Erritmo markatua eta kontraste handiak.

Hurrengo obra "Fuga-Bolero" izan zen, Marian Sawa poloniarrena. Oso polita, entzuteko errezagoa, bolero erritmoa beti presente eta melodia berdina teklatu batetik bestera aldatzen. Guretzako bi konpositore berri, ezagutzea merezi dutenak. Bi obra hauek aukeratzean poloniarrek apostu egin du bere herriko musikariengatik eta mende honetako musikariengatik. Txaloak.

Kontzertuetan ohitura denez, jendea gustora badago eta musikoa ere bai, programaz kanpoko obrak eskaintzen dira. Kasu honetan, Lefevre-Belly-ren "Sortie" izan zen lehenengo propina, oso alai eta erabat teatrala. Bukatzeko, egile ezezagunaren "Arian in F", barrokoa, kapritxo bat flauta txikien eta tronpetaren arteko elkarrizketa.

Organista oso pozik, instrumentuarrengatik eta jendearen harrerarengatik (korua beteta zegoen eta jende gehiago bankuetan jarrita behean). Gu, entzuleok, pozik ere igarotako momentu ederrengatik (Esteban Elizondoren hitzak oso lagungarriak dira). Azaroaren 28an, leku berean, Adalberto Martinez Solae-sa, Malagako organistaren emanaldia. Ordura arte. B

Fiskala

Lanekoa

Kontablea

Aseguruak

TBG. Ander Alberdi Lete / Zuzenbidean lizentziatua

Matxiategi 36, behea
20570 BERGAR Gipuzkoa

Tf. 943 76 90 83
Faxa 943 76 92 04

TRANSBER
TBG

Era guztietako kargak
Iraulkiak-Grua

Matxiategi 36, behea BERGARA
Tf. 943 76 90 83. Faxa 943 76 92 04

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimakerak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Bost erakusketa Kultur Etxean

Pintura, zeramika, argazkiak eta eskultura ikusgai

Gabon osterara arte bost erakusketa antolatuko dira Kultur Etxean Udazken Kultureko programaren barruan. Pintura, zeramika, argazkiak eta eskultura lanak erakutsiko dira.

Asteburu honetatik aurrera, Garbiñe Arrietaren pintura lanak izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan; margoak azaroaren 1era arte egongo dira eskegita.



BENITO CANTERO ETA AGUSTIN GURRUTXAGA

Azaroaren 4tik 15era bitartean, ostera, Jabier Mercaderren muralak ikusi ahal izango dira. Zeramikekin egindako horma muralak izango dira. Jabier Mecerderrek Bergaran erakutsiko duen "Ikonos" bildumako lan batzuk Frantzia, Italia eta Alemanian erakutsiko ditu Europako beste zeramika egile batzuekin batera datorren urtean.

Bestalde, abenduaren 4tik 13ra bitartean, Bergarako kirol munduko pertsonaien argazkiak izango dira ikusgai. Benito Canterok eta Jose Agustin Gurrutxagak Udal Kirol Zerbitzuaren enkarguz prestatutako erakusketa izango da. Herriko kirolariei edota kirolaren inguruan lanean dihardutenei egindako argazkiak izango dira. Zuri-beltzean eta 24 x 30 formatoan.

Azkenik, Gabonetan, herriko pintoreen lanak lehenengo eta eskultoreenak, ondoren, eskegiko dira Kultur Etxeko erakusgelako paretetan. B

Orfeoiaren emanaldia Tolosan zapatuan eta bertako kide izan direnei edota hauen familiakoei deia

Bergarako Orfeoiak Tolosako nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan hartuko du parte zapatu honetan bertako San Frantzisko elizan emango duen kontzertuan. Orfeoiarekin batera, Alaitz abesbatza, Bogoroditsie abesbatza eta Coral San Blas izango dira 20:00etatik aurrera.

Bestalde, Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan datorren urteko maiatzean aurkeztuko den liburua prestatzen ari dira

dagoeneko. Liburuan Orfeoiaren historiari erreposoa emango zaio eta, besteak beste, Orfeoiko kide izan diren guztien zerrenda jaso nahi dute liburuan. Zerrenda ahalik eta osatuena eta zehatzena izan dadin Orfeoian ibilitakoei edota hauen familiakoei deia luzatu nahi diete Orfeoiko zuzendaritzakoek urrian zehar izena eman dezaten honako toki hauetan: Kultur Etxean, Irrintzi kafetegian, Deba Garaia inbomiliarian edo Antxoni jatetxean. B

erreseinak



Mauro Azkona

Bergara 1926

Bergarari buruzko bideoa Zuri-beltzean. 37 minutu. VHS

Santo Kristo Hilzorikoaren harreraren 300. urteurrenaren ospakizunak zirela eta, 1926. urtean Mauro eta Victor Azkona anaiek Bergarako Udalaren enkarguz filmatutako imaginak bideo formatoan argitaratu dira. Pelikula mutua da, Juan Carlos Irizarren musikaz lagunduta. Mende hasierako Bergara nolakoa zen ikusteko aproposa: herriaren panoramikak, jaiak, dantzak..., agertzen dira.

- Euskal Filmategia. 1.000 PTA



Ruper Ordorika

Dabilen harria

Pop-rock


Ruper Ordorikak Estatu Batuetan ezagututako musikariekin grabatu nahi izan du bere seigarren iraupen luzekoa. Diskoa estudioan grabatu arren, zuzenekoaren itxura eman nahi izan dio soinuari, bat-batekotasunak ematen duen freskotasuna topatu nahian. Estiloari dagokionez, azken diskoetako ildoari eutsi dio oñatiarrak, batez ere "So Ik So" azkenengoan hartutako bideari: gitarra elektrikoak du protagonismoa eta honek atmosfera bereziak sortzen ditu, Ruperren ahots ozen eta garbia lehen mailan egon arren. Diskoa aurkezteko "Nor da?" abesti popero bikaina aukeratu arren, ez du CD osoa nolakoa den erakusten, honetan, balada eta denbora ertaineko konposizioak baitira nagusi.

- Nuevos Medios. 2.000 PTA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Ganorabako. 2. Legea. Soro. 3. Nafarroako ibilgailuetan. Neurri apalekoak. 4. Lodia. 1997an. 5. Aran mota. Alderantziz, iridioa. 6. Musika nota. Miatu. 7. Lehenengoa. Erdi, hitz elkarketan. Barazki mota. 8. Garratz bihurtu. Röntgen. 9. 100 m². Bokal errepikatua. Baldintzetan. 10. Hizki grekoa. Katilu txikiak.

Goitik behera

1. Zango-atal. 2. Eraikin bat egin. Garai, sasoi. 3. Sodioa. Zamorako ibilgailuetan. Baita. 4. Tuterakoak. 5. Iparraldean, ausarta. Bat. 6. Uranioa. Luzera-neurri zaharra. Zaren horrek. 7. Gauza. Guztiz nekatua. 8. Pozik. Sexu eme. Kontsonantea. 9. Arrain mota. Barioa. 10. Erbioa. Seguruak.

Soluzioa

10. Er. Zurrak
9. Bokata. Ba.
7. Gal. Akitua. 8. Alai. Alu. R.
5. Zainara. 1. 6. U. Kana. Zuk.
3. Na. Za. Ere. 4. Tuterarrak.
1. Zangosagar. 2. Eraiki. Aro.
Goiatik behera
9. area. Uu. Ba. 10. Ho. Kikarak.
7. A. Ert. Ilar. 8. Garratzu. R.
5. Okarana. n. 6. Si. Arakatu.
3. Na. Txikiak. 4. Gizona. laz.
1. Zentzugabe. 2. Arava. Alor.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da XVI. mendera arte ermita izan zen Elosuko elizaren izena?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Agirrebeña** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Martin de Pedrorrentzat** izan da: Zubi-berri jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Martini! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Barrenkalea / Argentina** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Agirrebeña
JATETXEA

Ibarra kalea 2, BERGARA
Telefonoa. 943 76 20 38

Mayc-eko langilea, David Reglero (28 urte) Jam aretoko atezainetako bat dugu. Piraguazale amorratua, duela bi urtetik hona Beti-Bustin ari da eta ahal duen bakoitzean arraunean aritzea gustatzen zaio.

David Reglero

Diskotekazalea zara?

Ez.

Diskotekan, dantzan ala geldi?

Igual dantzan...

Zelako musika atsegin?

Denetik piskat.

Egondako azken kontzertua?

Angelic upstairs taldearena; ondo egon zen.

Atezain egotearen gauzarik txarreana?

Mozkortuta datozenak aguantatzea.

Ligatzen al da diskotekako atean?

Ez, gutxi.

Nori ez zenioke sartzen utziko?

Inori ez.

Eta nor etortzea gustatuko litzaizuke?

Inor ez, bereziki.

Astebukaeran ordu txikietan

etxeratzen zara?

Goizean, gosalduta eta gero askotan.

Astebukaerarako plan bat?

Piraguan ibiltzea.

Noiz hasi zinen piraguan ibiltzen?

Duela pare bat urte, taldekoek erakutsita.

Teknika ala indarra?

Teknikak garrantzia haundiago dauka.

Piraguan, bakarrik ala lagunduta?

Bakarrik.

Piraguan ibiltzeko sasoirik onena?

Uda eta errekan nahiago itsasoan baino.

Probarik gustokoena?

Sellako jaitziera. Aurten izan naiz eta sekulako giroa egoten da.

Piraguan ibiltzeko gustoko toki bat?

Errobi ibaia, Iparraldean.

Eta non ibiltzea gustatuko litzaizuke?

Pirinioetan.

Oriokoekin probatuko zenuke?

Ez, gogorregia da hori.

Zenbat ordu lo egunero?

8-9 ordu normalean.

Zer gosaltzen duzu?

Kafesnea.

Gailetarik gustokoenak?

Kroisantik eta donutsak nahiago.

Meriendarik egiten duzu?

Bai, ogitarteko bat.

Jaterako orduan biziorik?

Bai, gozozalea naiz.

Posterrik baduzu etxeko logelan?

Bai, Realeko bat.

Jokalari bat?

De Pedro.

Errusiarrak kanporatuko dituzte?

Baietz uste dut.

Emakumeengan zertan fijatzen zara?

Lehenbizi begietan.

Zer eskatuko zenioke Lehendakari

berriari?

Lana.

Botoa emango duzu domekan?

Ez dakit.



ASPERTZEN EZ DUEN ZINTZARRIA

Egun osoa euskaraz

Bertsok, trikitixa, musika goxoa, herri kirolak, elkarrizketak, kultur saioak, herrietako berriak, umeen irratsaioa, alaitasuna...

Tf. 943 12 01 61 Faxa: 943 12 01 73. 212 postakutxa 20600 Eibar.



AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6, behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxe: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



Senior mailako saskibaloia taldea, 1979

Joan zen zapatuan Bergarako saskibaloia taldeko jokalariek batera partidua jokatze-ko bildu zirela aprobetxatuz, Bergara K.E.k izan zuen lehenengoetako senior taldearen argazkia ekarri dizuegu aste honetan. Erretratu Agorrosin futbol zelaian aterata dago, 1979 urtean. Garai hartan taldeak liga probintzian jokatzen zuen eta esan beharra dago, gainera, nahiko ondo aritu zirela Angel Macias entrenatzaileak zuzendutako mutilak. Ganorazko kantxa baten faltan, etxeko partiduak Plazan jokatzen zituzten orduan. Piskanaka-piskana-

ka taldearen maila hobetzen joan zen eta talde sendoa osatu zuen Bergarak. Argazkian Remigio Aranzabal, Iosu Esnaola, Roberto Zurro, Iosu Ibabe edota "Ursus" falta badira ere, horra hor bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jesus Egizabal, "Txiki" Menor, Angel Macias, Nartxi Azkargorta eta Josean Egizabal.

Jarrita: Iñaki Martinez, Toño Soto, Joseba Pereira, "Txiki" Oiarzabal eta Iñaki Aginagalde.

Argazkia: Iñaki Martinez

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

egizabal

Oinetakoak
eta poltsak



Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.

Ferrerias 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta 13 • BERGARA • 943 76 12 28



LAGUN

GARAJEA



HELBIDE BERRIA Santalaitz 3an (IAT/ITVren ondoan) Tf. 943 76 11 20

Mekanika orokorra • Autoen konponketa • IATrako prestaketa • Pneumatikoak • Direkzio alineazioa

konponbide

garaia da

konponbideak

autodeterminazio
eskubidea

lurraldetasuna

amnistia

alde
hemendik

bai
euskarari

35 ordu

gizarte
soldata

Euskal

Herriaren

garaia da

bozkatu

EH

Euskal Herritarrok

Euskal

Herritarrok